

Urtekarria

25

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2026KO
URTARRILAREN 16A
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus

Bandera berri bat gure etxeetan

**Palestinak Israelen partetik jasan duen
genoizidioa izan da 2025ean jendartea
gehien mugiarazi duen gaia. Hango bandera
nonahi egin dute bere herritarrek • 3-5**

IGO GURE KANALETARA

Oarso Bidasoko HITZAk Whatsapp eta Telegram kanalak ditu martxan. Harpidetu eta albiste guztiak jaso egunean!

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



**Telegramera
harpidetzeko:**
@obhitza edo
t.me/obhitza



**Whatsappera
harpidetzeko:**
<https://whatsapp.com/channel/0029Vaj-JZjd3bbV9wchLBC2q>



PALESTINAZ HITZ EGITEN JARRAITU BEHAR DA

OARSO BIDASOKO HITZA-ren urtekari honetan beti izan dira urteko albiste nagusi Oarsoaldeko eta Irungo nahiz Hondarribiko gaiak. 2025ean, ordea, herri guztietan komunean izan den hizketagaia, kezka iturria, herritar gehien mugiarazi dituen, gizartearen kapa askotan eragina izan duena, Palestinako herriak Israelen partetik jasan duen zapalkuntzarena izan da.

2026an, agian intentsitate txikiagoarekin, Palestinak mehatxupear jarraituko du. Gaiak hitz egiten ez bada, ez da existituko.

Imanol Saiz
Gomez de Segura

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petirena.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:

Irun kalea 8 behe,
20100 Errenteria-Orereta.

Telefona:

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Publizitatea:

Telefona:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko,
harpidedun egiteko):

943 30 30 35

harpidetza@hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus

oarsoaldea.hitza.eus

bidasoa.hitza.eus





KALEAN. Orereta Palestinak egindakoen artean, Gaza etorbidea sortu dute. HITZA



FEMINISMOTIK. Urriaren 10ean, Palestinaren aldeko mobilizazio feminista Pasaian. U. E.



LANUZTEAK. Urriaren 15ean lanuzteak izan ziren. Irudian, Irungo CAFeko langileena. HITZA



ASTERO. Hondarribian, Kale Nagusian, astero egin dituzte kazeroladak. A. Mendizabal

Urte osoko elkartasun olatua

Palestinako herria jazartua, suntsitua eta erbestera kondenatua izan da Israelen genozidioagatik. Horren kontrakotasuna oso nabaria izan da Oarso Bidasoan 2025ean. Jendartearen geruza guztietara iritsi da elkartasun olatua.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

J

oan den urtean jendartearen kapa ezberdinetara era batera edo bestera iritsi den gaia izan da Palestinak Israelen partetik jaso duen zapalkuntza. Genozidioaren kontrakotasuna era askotara salatu dute herri guztietan herritarrek, tokian tokiko eragileek bultzatutako mobilizazioen bitartez, edo nazio mailako plataformek deitutako aldarrikapenerako egunen bidez. Unerik gorena urriaren 15ean bizi izan zen: goizez lanuzteak egin ziren lantegi eta enpresetan; arratsalde berrunbak, elkarretaratzeak eta manifestazioak herri guztietan.

Jendartearen erabat sentsibilizatu du Palestinako herriaren kontrako oldarraldiak. Urruneko gaia bada ere, hurbil

sentitu dute Oarsoaldeko eta Bidasoko herritarrek. Injustiziaren kontrako agerrialdiak askotarikoak izan dira, eta horiek kalean, ikastetxeetan, enpresetan, erakundeetan eta beste arlo askotan izan dute oihartzuna. Kaleetako paisaia oso nabarmena izan da Palestinako banderen presentzia. Hurbilekoan herriz herri zer landu eta zertan eragin izan bada ere, Israelen genozidioak aspaldi ikusten ez ziren elkartasun adierazpideak ekarri ditu kaleetara.

Esaterako, urriaren 15eko mobilizazio oldeaz gain, urtean zehar ikastetxeetan dinamika iraunkorrak garatu dituzte *Gure haurrak ere badira* plataformaren deia jarraiki. Hondarribian, astero-astero kazeroladak egin dituzte, eta irailaren 8ko Alardean Jaizkibel konpainiako kideek kufiyak edo Palestinako zapiak eraman zituzten. Lezon, santakruzak hasi baino lehen, herri horretan inoiz izan den mobilizaziorik handiena egin zen irailaren 13an, Palestinaren aldekoa hura; Errenteria-Oreretan bertako herri ekimeneko



FESTETAN. Lezoko santakruzak hasi aurretik manifestazio jendetsua egin zuten. U. Etxebeste



ONTZIDIA. Elkartasun ontzidiaren aldeko elkarretaratzea Oartzunen, urriaren 2an. A. A.



HAURREKIN. «Gure haurrak ere badira» esan zuten Trintxerpeko Karmengo Aman. HITZA



HEZKUNTZA. Oartzungo Haurtzaroko hezkuntza komunitatea, Palestinarekin bat. HITZA

taldearen bitartez etenik gabe izan da presente gaia kaleetan; Irunen askotarikoak izan dira ekinaldiak, eta adibidez bertan izan zen *Ibaitik itsasora* nazio martxa; Pasaian barrutiz barruti izan du erantzuna genozidioak deitu diren dozenaka mobilizazioen bitartez; Oartzunen Palestinaz hitz egin da aldiro-aldiro... Herri guztietako herri ekimeneko jardueretan (kirolean, kulturean, festetan...) ez da falta izan Pa-

lestinaren aldeko babesik. Elkartasun olatua izugarri handia izan da.

Irailan, Erreterria-Oreretako Atlantikaldiaren barruan, Sol Band musika talde palestinarrak kontzertua eskaini zuen. Taldeko kide Rahaf Samadik arras eskertu zuen bertan jasotako elkartasuna: «Euskal Herrian egotea ohore bat da niretzat. Ozenki hitz egingen da gure herriari buruz, gure banderak edonon ikus daitezke eta denek

dute gogoia Palestinaren alde borrokatzeko. Horrek sentiarazten dit gure jendea eta Gaza ez daudela bakarrik. Nire etxea bezala ulertzen dut Euskal Herria. Ez da nire bigarren etxea, etxea baizik. Oso eskertuak gaude hemen bizi dugun guztiagatik».

2026an ere Palestina borrokan izango da. Ustezko su-etena den arren, hildakoak egunero-egunero zenbatzen ari direlako han. ■



samar
ADMINISTRATIOAK

Biteri 45, behea. Erreterria-Orereta
943 50 32 24 - 688 71 43 14
samar.admon@gmail.com



Lete
itzulpenak
www.lete.net

- administrazioa •
- publizitatea •
- liburuak •
- enpresa •

Tel.: 943 515 346 . www.lete.net . lete@lete.net



Bide Berriaren proposamena Gaztaño auzorako. Errenteriako Udala

Kezka, garaipena eta proposamena

Topoa Errenteria-Oreretan integratzeko urrats esanguratsuak egin dira 2025ean. ETSk iragarri du Galtzarabordako geltokia estaliko duela, eta udalak Bide Berria egitasmoa aurkeztu du. Auzo elkarteak ere mugimenduan dira.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

ERRENTERIA-ORERETA

Topoa Oarso Bidasoko garraio publiko sistemaren ikurretakoa da. Azken urteetan trenbidearen trazatua eta maiztasuna hobetzeko asmo handiko lanak egiten ari da Eusko Jaurlaritza Eusko Trenbide Sarearen (ETS) bidez, Antxoko-Galtzaraborda lur azpiko trenbide berria kasu. Baina Errenteria-Oreretaren Erdialdea orain arte garraiobidearen eraberritze aro horretatik kanpo gelditu da. Horrek kezka eragin du bizilagunen eta Errenteriako Udalaren artean.

2025a garaipen batekin hasi zen. Martxoaren hasieran ETSk iragarri

zuen Galtzarabordako geltokia estaltzeko egitasmoa lizitaziora aterako zuela. Inguruko bizilagunen urtetako eskaera zen hura. Galtzarabordako Gure Leku auzo elkarteko kideek trenbidea estaltzea bizilagunen esfortzu komunaren eta udalaren inplikazioaren ondorio izan dela esan zuten: «Bizilagunei esker lortu da, egoera bat eraldatzeko gai izan gara. Oso gauza handia da hori, balioa eman beharrekoa, eta udal ordezkariekin egindako elkarlan hori eredu gisa hartu dugu». Estaltzen denean Galtzaraborda eta Alaberga auzoak lotuak izango dira,

eta herritarrentzat aisiarako espazio berriak zabalduko dira.

Ekainaren 3an aurkeztu zuen udalak Bide Berria egitasmoa. EH Bilduko eta Podemoseko udal gobernukideek, eta EAJko ordezkariak babestu zuten proiektua. Aurreko egunean, lankidetzaren protokoloa sinatu zuten udalak eta ETSk. Lankidetzaren protokolo horren xedeak bi dira nagusiki: bi erakundeen arteko lankidetzarako markoa eraikitzea, eta topoak udalerrian duen eragina gutxitzeko eta bere ibilbidearen ingurua birgaitzeko eta eraldatzeko irtenbide partekatuak adostea. Zentzu horretan, Bide Berria proposamenari balioa eman zion Aizpea Otaegi alkateak, «topoa gure udalerrian integratzeko udalaren proposamena da». Jaurlaritzak adierazi zuen egitasmoa ez dela harekin adostu.

Proiektua sei helbururen bueltan egituratu da: kalitatezko espazio publikoa irabaztea; zarata gutxitzea; irisgarritasuna hobetzea; mugikortasuna hobetzea; aparkaleku gehiago sortzea, eta intermodalitatea erraztea. Helburu horiek kontuan hartuta, topoaren ibilbidean eremu garrantzitsuetarako proposamenak azaldu zituen alkateak: Galtzaraborda, Erdigunea, Gaztaño eta Fanderia.

Herritarren kezka

Topoa herrian integratzeko den informazioa lausoa izanik —proposamen zehatz bakarra Bide Berria da orain arte—, herriko hamar auzo elkartek deituta batzarra egin zen abenduan. Jendetsua izan zen. Hainbat erakunderekin hartu-emanak zabalik dituzte auzo elkarte horiek, eta horietatik lortutako informazioa jendartera zabaldu zuten. Kezka azaldu zuten, ordea: Gipuzkoako eta inguruko hainbat herritan topoaren integrazioa sustatzeko inbertsio handiak egin dira, Errenterian ere hala egitea eskatu zuten, «ez gara bigarren mailakoak».

Abenduan, Eusko Jaurlaritzak proposatu zuen Gaztañoko kotxetegiaren 200 etxebizitza eraikitzea. Bizilagunak kontuan hartu gabe garatutako proiektua dela salatu du Gaztañoko auzo elkarteak, «ezegokitzat» eman zuen. ■



Abenduaren 3ko Euskararen Egunean, Pizkundera joateko deialdia egin zuten Oiartzunen. Leire Perlines

Azken hilabeteetan asko izan dira euskararen normalizazioaren kontra epaitegietatik iritsi diren albisteak. Denak hizkuntzaren kontrakoak. Uztailean, esaterako, Espainiako Auzitegi Gorenak Vox alderdi ultraeskuindar espainiarrek aurkeztutako salaketaren ebazpen judiziala kaleratu zen: ebazpen horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Udal Legearen dekretutik artikululu gehienak atzera bota zituen, eta euskara lehenetsiz gero, hizkuntzen koofizialtasuna urratzen dela adierazi zuen. «Larria da epaia, eta euskararen normalizazioan kontra ez ezik, euskal gizartearen borondatearen eta euskal erakundeen kontrako epaia da», esan zuen orduko hartan UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak.

Horregatik, epai horren harira, UEMAren barruan diren udalerrietan salaketa elkarretaratzeak egin zituzten uztailearen 19an. Oarso Bidasoan Hondarribia, Lezo eta Oiartzun dira UEMAkide: «Oldarraldi honek epaitegietan du fronte ikusgarrienetako bat, baina, argi dago atzean bultzada ideologikoa, politikoa, eta mediatikoa ere badituela».

Epaitegien ebazpenei, euskararen atzeraldi soziala erantsi behar zaio.

Pizkundera, euskarak tokia irabaz dezan

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Arnasguneak galtzen ari da hizkuntza. Euskararen ezagutza inoizko handiena bada ere, horren erabilera ez da horren araberrakoa. Erabilera soziala kezka iturri da. Euskararen Egunaren testuinguruan, euskaltzaleen aktibaziotik iritsiko den itxaropenerako mezua zabaldu nahi izan zuten Oarso Bidasoko tokian

tokiko eragileek. Oiartzunen, euskarak beste arnasaldi bat behar duela adierazi zuten abenduaren 3an: «Etorbizuna jokoan den honetan ezinbestekoa da guztiok dagokigun erantzukizuna geure egitea, euskararen normalizazio eta biziberritzearen aldeko indar berri bat sortzea».

Pizkundera

Euskararen giharra tenkatze aldera, Pizkundera ekitaldia egin zen Bilbon abenduaren 27an, Euskalgintzaren Kontseiluak deitua. Oarso Bidasoko eragile euskaltzaleek hara joateko deia egin zieten herritarrei. «Euskaltzaleon komunitate sentimendua sendotu eta arnasa kolektibo bat izango da, Pizkunde berri baten premia irudikatzeko une garrantzitsua. Euskararen etorkizuna jokoan dagoen honetan, euskaltzaleon garaia da. Biltzekoa. Elkarrekin arnasa hartzekoa», esan zuten Lezoko Euskararen Eguneko ekitaldian. ■

Pacheco Izeta
Loredenda

Urte berria, lore berriak

www.pachecoizetaloreak.com
943 49 18 68 652 76 57 19
MANUT merkatalgunea
Oiartzun



Elkartasuna erakustaldia Irunen. Alaine Aranburu Etxegoien

Elkartasuna ez dela delitua aldarrikatzeko, kalera

23. Korrikaren testuinguruan Irun eta Hendaia arteko zubia pasa zuten 36 pertsoneri laguntzea egotzita zazpi ekintzaile epaitu dituzte. Pertsona horiek legez kanpo iragaitea egotzi zieten.

ERREDAKZIOA

IRUN

Korrikaren 23. ekitaldiaren barruan migratzen ari ziren 36 pertsonen gurutzatu zuten Irun eta Hendaia arteko zubia 2024ko martxoan, eta Bidasoko zazpi ekintzailerik lagun horiek legez kanpo iragaitea eta talde antolatuko kide izatea egotzi zien Frantziako justiziari. Gertaera horien harira, deklaratzera deitu zituzten Baionako epaitegira urtarrilaren 28an. Epaitegi aurrean elkarretaratzea egin zuten dozenaka lagunak elkartasuna adierazteko zazpi lagun horiei, eta bi egun aurretik, nazio manifestazio handia egin zuten Ficobatik abiatu eta Pausuko (Urruña) zubiraino; 2.500 herritarretik gora hartu zuten parte 50 eragile politiko, sozial, eta sindikalen babesarekin.

Ehunka direla Irunen eta Hendaian «elkartasuna antolatu eta migrazio politika ankerrei» aurre egiten dieten boluntario konprometituen goretzi zuten manifestazio bukaerako ekitaldian.

Boluntario horiek, agintari politikoek eta legeak betearazten dituzten politzien jazarpenaren aurrean, igarobide seguruaren alde egin eta haiek erakitze-ko konpromisoa dutela esan zuten, eta mugak apurtu eta zubiak erakitzearen aldeko aldarria zabaldu zuten.

Egindako desobedientzia ariketak helburu zituztela, Euskal Herria herrera herria dela erakustea adierazi zuten, dagoeneko bederatzi pertsona hil baitira Bidasoa ibaia gurutzatu nahian. Heriotza horien errudun jo zituzten, halaber, Europako migrazio politika arrazista eta hiltzaileak.

Urtarrilean izan behar zuten epaiketa urrian egin zuten, azkenean. Hasiaren hamar urteko espetxe zigorra eta 750.000 euro eskatu zituzten auzipetuen kontra; gerora zigor eskaerak murriztu zituzten, eta 1.000 eta 1.500 euro arteko eskaera egin zieten seiri, eta beste auzipetu bat errugabetu egin zuten. Epaia zain da auzia. ■

Tenkatutako eremu izendapena heldu da

OARSO BIDASOA. Tentsio handiko eremu izendatu zuten EAEko lehen udalerria Errenteria-Orereta izan zen, urtarrilean. Hori horrela, datozen hiru urteetan gutxienez mantenduko da izendapen hori, eta muga jarri ahalko diote alokairuaren prezioari bizitegi larrialdi betean. Muga hori jartzeko erreferentziatzeko prezioen indizea, baina, zortzi hilabete geroago finkatu zuen Espainiako Etxebizitza Ministerioak, eta eremu tentsionatu izendapenak udalei ematen dizkien lanabesak indarrean sartzeko aukera irailean heldu zen.

Apirilean jaso zuen izendapena Iru- nek. Lezoko Udalak eskaera egitea onartu zuen martxoko udalbatzarrean, eta Eusko Jaurlaritzak abenduan onartu. Pasaiko Udalak irailean egin zuen eskaera; erantzunaren zain da.



Zazpi urte pentsio duinak babesten

OARSO BIDASOA. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak mobilizazio masibo eta iraunkorak abiatu zituzten zazpi urte bete ziren urtarrilaren 15ean. Bide horretan, gobernuetatik ezarritako erreforma atzerakoi eta zerbitzu publikoak pribatizatze-ko ageriko asmoari galga jartzeko saiakera irmoa egiten ari dira Oarsoaldean eta Bidasoan ere pentsiodunak, hileko lehen astelehenero lehenek, eta urteko astelehen guzti-guztietan bigarrenak.

Mezu argia zabaldu zuten urteurrenaren harira: «Gure eskubideak ez dira adinarekin iraungitzen eta gobernuen ardura da pertsona guztiei bizi baldintza duinak bermatzea».



Oiartzun Irratiak, mende laurdena

OIARTZUN. Mende laurdena bete du Oiartzun Irratiak, eta horren harira ekitaldia antolatu zuten urtarrilean; urteurrena ospatzearekin batera kolaboratzaile eta webgune berriak ere aurkeztu zituen. Landetxek hartu zuen Oiartzun Irratia Ga-La. Kolaborazioen arloan, irratia HITZA-rekin duen lankidetzat indartzea jarri zuten jomugan, baita irratia presentzia handitzea ere.

Norbanako eta eragile ugari izan zituen Oiartzun Irratiak konplize urteurren festa berezi horretan, egunerokoan egiten duen lana eta ekarpena aitortzeko.

Jesus Carrera biktimatzat aitortua

HONDARRIBIA. Jesus Carrera Olaskoaga Francoren diktadurak sortutako egoera bidegabean biktimatzat aitortu zuen udalak. 1945eko urtarrilaren 16an fusilatu zuten, Alcalá de Henaresen (Madril, Espainia), eta haren gorpua 78 urtez izan zen hobi komun batean, ahanzturara kondenatuta. Herriko hainbat historialarik egindako lanari esker, Kandido Sasetaren gorpuzkiak aurrenik (2008an) eta Carrerarenak ondoren (2018an) Hondarribira itzultzea lortu zuten.

Carrera fusilatu zutela 80 urte bete ziren egunean heldu zen udalaren aitortza, ez zen ausazkoa izan data horretan egitea. Haren senideei elkartzuna adierazi zien aitortza egitearekin batera udalak, eta oroitu, Carrera eta Sasetarekin batera beste herrikide asko izan zirela 1936tik 1975era bitartean giza eskubideen askotariko urraketak sufritu zituztenak.



Urko Etxebeste Petirena

LEZO ETA DONIBANE BIDEGORRIZ LOTUTA

MIKEL DEL VAL GARCIA

DONIBANE-LEZO. Lezo eta Donibane bidegorriz lotzeko falta zen tartea egi bihurtu zen herritarren urteetako eskaera historikoari erantzunez. 270 metroko bidegorri zati bat da eraiki zutena, eta proiektua Gipuzkoako mugikortasun jasangarrian mugarri izan zen, lotura seguru eta ekologikoa ahalbidetuta bi udalerrien artean. Lan horiekin, Pasaia, Lezo, Donostia eta Oiartzun bidegorriz lotuta geratu ziren.

Bidegorri zati hori eraikitzeko 1.949.782,87 euroko inbertsioa bideratu zuten, eta 11 hilabeteko iraupena izan zuten lanek.



Mural bat emakume eskorgarientzat

PASAI. Ikusezin izan diren emakumeen lana aldarrikatzeko murala egin zuten Pasaia Berdintasun Mahairen ekimenez. Berexiart artistak egin zuen murala Trintxerpen, artxiboak han kokatzen ditu emakume eskorgariak. Artistak hasitako murala emakumeek bukatu zuten.

Portuaren bueltan egin zuten lan eskorgariak, eta salgaiak ontzietatik biltegietara eta merkatuetara garraiatzen zituzten eskuzko orgak erabilita. Udal Euskaltegiaren parean aitortza egin die orain muralak.

85 urteko zigorra surf irakasle bati

HONDARRIBIA. Adingabeei sexu gehiegikeriak egitea egotzita 85 urteko kartzela zigorra eskatu zuen Gipuzkoako Fisikaltzak surf irakasle batentzat. Zehazki, 16 urtez azpiko adingabeen kontrako 11 delituegatik 84 urteko eskaera egin zuten, eta urtebete haur pornografiako edukiak izategatik. Salaketa baten harira atxilotu zuten, eta gutxienez hamar urte zeramatzala abusuak egiten egiaztatuta ahal izan zuten.

Martxoan epaitu eta uztailean jakinarazi zuen Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak epaia: 71 urte, bost hilabete eta bederatzi eguneko kartzela zigorra ezarri zion. Biktimen familiak epaiarekin «pozik» azaldu ziren, baina «neurri batean» soilik. «Harrituta» azaldu ziren epaileak ez zuelako onartu «intimidazioa» egon zenik, eta, beraz, gizona sexu abusuak egitegatik zigortu zuten, eta ez sexu erasoengatik.



Ehunka lagunek hartu zuten parte manifestazioan. Ikerne Zarate

Kalea hartu zuten faxismoaren aurka, eta mezu argia helarazi, «gure herria eta gure izaera antifaxistak dira». Ehunka eta ehunka herritar atera ziren kalera Orereta/Errenteria Herri Ekimenak *Faxismoaren oldarraldiaren aurrean, askatasuna* lelopean deitutako manifestazioarekin bat eginda otsailaren 21ean. Pankartaren atzera adin, jatorri, izaera eta pentsaera askotariko herritarrak bildu ziren, oihu ozena egiteko faxismoaren aurka.

Kolore anitzez eta askotariko aldarrikapenez bete zuten manifestazioaren ibilbidea bertaratutakoek, guztiak batera, faxismoaren aurka. Herriko Plazatik abiatuta, Zumardian bukatu zen protesta, herriaren erdi-erdian, oreretarrentzat erreferentziazkoa den espazioan, hurrengo egunean Vox alderdi ultraeskuindarrak propaganda karpa jarri zuen eremuan.

Urrats bat atzera egitea nahi dutenen aurrean, manifestazio erraldoia pausu

Faxismoari galga jarri diote ehunka herritarrek

Ehunka eta ehunka herritar atera dira kalera Errenteria-Oreretan faxistak ez direla ongietorriak esatera. Vox Espainiako alderdi ultraeskuindarra propaganda karpa jartzera etorri dela-eta egin dute protesta.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA
ERRETERIA-ORERETA

bat aurrera izan zen antolatzaileentzat, «pausu bat aurrera gure eskubideen eta askatasunaren alde», eta balioa eman zioten udalerriaren aniztasunari, «askotarikoen arteko aliantzak» marrazten duelako Errenteria-Oreretaren izaera: «Sinetsita gaude gure herriaren alde elkarrekin ekinez, eskubide eta askatasun gehiagoren alde lerrokatuz, oldarraldi faxistari ateak itxiko dizkiogula».

Probokazioan ez erortzeko eta hutsarena egiteko eskatu zuten herri ekimeneko ordezkariak protesta bukarako irakurraldian. Bide beretik egin zuen udalak, aho batez, udal ordezkari guztiek adostu zuten adierazpen instituzionalaren bidez. Manifestazioa bezala, adierazpen hori ere, historikoa izan zen.

Faxismoak lekurik ez

Ertzaintzak egindako pasilloan barrena atera ziren otsailaren 22an Voxeko kideak Errenteria-Oreretatik, eta mezu argi bat jasota: ez direla ongietorriak udalerrian. Aurreikusitako orduaren bueltan heldu ziren Vox Espainiako ultraeskuineko alderdiko hamabost bat kide, oinez. Zumardi txikian muntatu zuten karpa, eta mahaia jarri haien etorrerarako kolore eta aldarrikapen antifaxistez jantzitako eremuan. Jarri zuten karparen gainean, LGTBIQ+ bandera, ikur feminista, eta kartel antifaxistak gogorarazi ziren Errenteria-Oreretan faxismoak eta ultra eskuinak ez dutela lekurik. Bertan eman zituzten bi ordu eta erdian etengabe entzun ahal izan zen musika euskalduna eta antifaxista. Ertzainek osatutako segurtasun hesiaren barruan izan ziren, uneoro. Hesien bestaldean, herritar ugari Errenteria-Orereta antifaxista dela agerian uzten.

Argazkiaren bila etorri ziren eta jarra probokatzaila erakutsi zuten sarri. Ez zuten lortu. Zumardiaren bazter batean izan ziren, udalerrian Eusko Legebiltzarrerako 2024an egindako hauteskundeetan lortutako botoen kopuruaren pareko espazio txikian: erabat marjinala da ultraeskuineko alderdiak udalerrian duen boto kopurua: 278 papertxo jaso zituen. ■



Ane Mendizabal Sarriegi

IKASTOLA SORTU ZENETIK 60 URTE

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

HONDARRIBIA. 60 urte bete ziren otsailean Hondarribiko Ikastola sortu zenetik, eta urteurrenaren bueltan Gari Garaialde fotokazetariak sortutako *Ero haiek* dokumentala estreinatu zuten otsailaren 21ean, Ama Hizkuntzen Egunean. Dokumentalaren funtsa, euskaraz hitz egitea debekatua zuten garai batean, ama hizkuntzaren aldeko hautua egin zutenei ahotsa ematea.

Gainera, duela sei hamarkada sortutako hura jaso eta betikotu egin zuen dokumentalak.

Ama hil du 47 urteko gizon batek

IRUN. Indarkeria matxistak bere aurpegiak latzena erakutsi zuen Irunen. Mirentxu Arregi 74 urteko irundarra hil zuen 47 urteko semeak otsailaren 5ean. Labanaz eraso egin zion amari, motoan ihes egin zuen, baina minutu gutxira atxilo eraman zuen Ertzaintzak. Ama Donostiako Ospitalera eraman zuten, han hil zen. Gizona Martutenen espetxe-ratzeko agindu zuen epaileak.

Hiriko mugimendu feministak eta udalak gaitzespen eta sumindura mezuak zabaltu zituzten. Aldundiak, Emakundek eta Eudelek ere gaitzetsi zuten hilketa matxista.

Sexu gehiegikeria

Txingudi Ikastolako irakasle ohi bat kondenatu zuten otsailean, bestalde, sexu gehiegikeriagatik. Lau urteko espetxe zigorra, zazpiko inhabilitazioa, eta hiruko urruntze agindua ezarri zizkioten 2016-2017 ikasturtean ikasle bati egindako erasoengatik; ikasleak 12 urte zituen.



Gaintxurizketan hasi dituzte lanak

LEZO. Otsailean hasi zituzten Gaintxurizketa auzoa erdibitzen duen Gi-636 errepidearen gaineko behin-behineko pasabidea egiteko lanak. Lezoko Udalak «baikor» baloratu zuen lanen hasiera eta «aurrerapauso garrantzitsutzat» jo zuen. Mikel Arruti alkateak bizilagunen lana eta aldarriak jarri zituen erdi-erdian, sinistuta horiek «ezinbestekoak» izan direla bizi zuten arriskuari behin betiko konponbidea emateko.

Lanekin auzotarren nahiz bertan lan egiten duten oinezkoen segurtasuna hobetuko direla adierazi zuen udalak.

Euskoak hegoaldera jauzi egin du

OARSOALDEA. Euskoaren esperientziatik abiatuta, bi inizatiba pilotu abiatu zituen 2025aren hasieran Gizartearen Monetak Baztanen eta Oarsoaldean. Udaberrian eskualdeko batzordea sortu zuten eta horren aurretik parte hartze prozesua abiatu merkatari, sindikatu, mugimendu feminista, euskalgintza, eta pentsiodunen mugimenduarekin, besteak beste. Urtean zehar hainbat batzar egin ditu Oarsoaldeko udalerrietan monetaren nondik norakoak azaldu eta babesa jasotzeko. Oarsoaldea euskoarekin elkarbizitzaren aurten hasiko dela aurreikusi du Gizartearen Monetak.



Erbestera joandako haurren datu basea

BIDASOA. Intxorta 1937 kultur elkarteak erbestera joan ziren Hondarribiko 610 haurren datu basea argitaratu zuen, eta horrenbestez, Nicolas Gerendiain elkartearen webgunean aurki daiteke (asociacionrepublicanaairunesa.org). Izen abizenak, jaiotze data, erbesteratu zuten lekuaren izena, erbesteratzeko data, gurasoen izen-abizenak, eta Hondarribira itzuli ziren edo ez bildu zuten datu base horretan.

Aurretik ikerketa egin zuen udalak, 2021ean, haur horien izenak ezagutzeko, eta gizarteratu egin zituen ondoren.

2024aren bukaeran 1936ko gerraren ondorioz erbestera joan ziren 1.600 haur irundarren datu basea argitaratu zuen Intxorta 1937 kultur elkarteak, Gipuzkoako Foru aldundiaren laguntzarekin eta Nicolas Gerendiain elkartearekin elkarlanean. Egindako lanari esker, herri-tarren eskura daude orain datu horiek.



M8 Asanblada Feministak deitutako manifestazioa. Ane Mendizabal

Faxismoari aurre egiteko, borroka feminista

Oarso Bidasoko herri guztietan irten dira kalera Emakumearen Nazioarteko Egunean. Martxoaren 8 honetan faxismoa jarri dute erdigunean, eta ehunka bizilagun elkartu dira karriketan.

LEIRE PERLINES APALATEGI

OARSO BIDASOA

Egun handia izaten da Martxoaren 8a. Borrokarako eguna da, ehunka emakumek urtean zehar egiten dutena ikusarazteko eguna, alegia.

Berdintasunaren aldarria lau haizetara zabaltzeko eguna izaten da batez ere Martxoaren 8a, baina egun hori ospatzeak berak bistan uzten du oraindik lan asko dagoela egiteke.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak *Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak* leloa baliatu zuen aurtengo Martxoaren 8an, eta, hala egin zuen Oreretako Asanblada Feministak ere.

Oarso Bidasoako herri guztietan egin zituzten ekitaldi eta manifestazioak egun horretan, eta jendetsuak izan ziren denak, konpromisoaren erakusle hain zuen.

M8 Bidasoako Asanblada Feministak, esaterako, manifestaziora deitu zuen arratsaldean, eta jende andanak eran-

tzun zion deiari. 2018az geroztik berdintasunaren aldeko martxa bateratua egiten dute Bidasoko herritarrek, eta aurtengoan ere argi utzi dute indarrak batzeak indartsuago egiten dituela.

Martxoak 8 plazan elkartu ziren hondarribiarrak, eta Tamara Sastrek Rosa Gomezen poema bat irakurri ondotik abiatu zuten bidea Irunerantz *Matxismoaren aurka. Berdintasunaren aldeko martxa* zioen pankarta batekin. Irundarrak Abenida zubian elkartu ziren zutabera, eta *Faxismoaren kontra ausardia eta aliantza feministak* aldarrikatzen zuen pankarta aurrean zutelarik egin zuten bidea Zabaltza plazara arte.

Lezon eta Oiartzunen ere manifestazio jendetsuak egin zituzten, eta, noski, ezinbestean, faxismoari egin zioten erreferentzia irakurraldietan. Pasaian, martxoaren 23an egin zuten Emakumeen Nazioarteko Egunaren harirako ekitaldi nagusia, Trintxerpen. ■

Motibazio politikoko biktima gisa aitortuta

PASAIA. Pasaiaiko sarraskian hildako Dionisio Aizpuru, Pedro Mari Isart, Jose Mari Izura eta Rafael Delas motibazio politikoko biktima gisa aitortu zituen Eusko Jaurlaritzak. 2025ean 41 urte bete dira dozenaka poliziek Komando Autonomo Antikapitalistetak kideak tiroka hil zituztenetik. 1984ko martxoan hil zituzten tiroz, eta haien gorpuetan 113 bala zulo zenbatu zituzten.

Aitortza emateko Jaurlaritzako Balarazio Batzordeak erabilitako dokumentazioaren zenbait pasarte aurreratu zituzten, eta, tartean, adierazi zuten batzordeak ondorioztatu zuela «bizitzeko eskubidea urratua» izan zela.

Eraildakoen senideek azaldu zuten kasua ez zela «behar bezala» ikertu. «Ez zen aztertu gertakarien lekua, eta gorpuen altxatzea ere eskasa izan zen».



Osasun mentalaren alde, kalera

HONDARRIBIA. Haurren psikiatria zerbitzua Bidasoko Ospitaletik Donostiakora lekualdatzeak haserrea piztu zuen pazienteen familien artean, eta erabaki horri aurre egiteko Martxoak 8 plazan hasi zuten mobilizazioa martxoaren 22an.

Manifestazio horretan herritarren zergak gazteen osasun mentalerako baliabideak indartzeko izan daitezen eskatu zuten, «gazteak etorkizuna baitira».

100.000 biztanleko 20 psikologo egon behar diren arren, Bidasoan sei besterik ez daudela salatu zuen paziente baten senide batek. Gehitu zuen Bidasoko ospitalean lanean egon den psikiatra jada ez zegoela, eta zuela ordezkorik izan.



«Arrantza bai» esan dute Pasaian

PASAI. Otsailaren bukaeran Pasaiako Portu Agintaritzak gogorazi zuen haren eremuetan debekatuta dagoela aisia arrantza egitea. Hala balitz, indarrean dagoen araudia «zorrotz» betetzen hasiko zela iragarri zuen, isunak ezartzeko aukera berrartuz. Horrek haserrea eragin zuen inguru horietan aisia arrantzan aritzen direnen artean, eta kalera atera ziren arrantzaleak «arrantza bai» esateko, martxoaren 23an. Arrantzaren zaleek zioten eremu horietan jarduera hori eza-batzeak «arriskuan» jartzen duela «belaunaldiz belaunaldi transmititu den tradizio bat, pasaitarren tradizio bat».

Topoaren proiektua idazten hasi dira

ERRETERIA-ORERETA. Eusko Trenbide Sareak (ETS) lehiaketara atera zuen Galtzaraborda eta Alaberga arteko trenbide eta estazio ingurua estaltzeko proiektuaren idazketa. Udalak «oso positibotzat» jo zuen berria, eta nabarmen jarri zuen «eskaera historikoa» izan zela.

Aizpea Otaegi alkateak herritarren lana goraipatu zuen; «hau azken hilabete luzeetan herritarrek egin duten lanaren emaitza ere bada».

Galtzarabordako ingurunea estaltzeak topoak Erreteria-Oreretan eragiten dituen afekzioak gutxituko baditu ere, alkatearen esanetan, lehen pausua izan behar du horrek: «Mugarri garrantzitsua da hau, topoak udalerrian duen trenbidea hirian integratzeko».

Otaegik ETSri aurrerantzean ere elkarlanean jarraitzeko eskua luzatu zion, hori izango baita «herritarren beharrei erantzuteko modu egokiena».



Euskadiko Suhiltzaileak

HIRU SUTE IZAN DIRA JAIZKIBELN

ERREDAKZIOA

OARSO BIDASOA. Jaizkibelen, Donibanen, sutea piztu zen Alabortzatik gora martxoaren 20an, Talaia bidearen inguruan, eta bi mingain izan zituen: Hondarribia aldera joan zena, eta Donibanekoa. Bi fokuak kontrolpean izan ondoren erabat itzali zituzten.

Martxoaren 8an, baina, beste sute bat piztu zen Jaizkibel mendiko Hondarribiko Artzu inguruan, eta berau itzaltzen laguntzen ari zela hondarribiar bat zendu zen. Azaroaren 15ean, Higer eremuaren inguruan beste sute bat izan zen, eta hainbat bizilagun, kanpinekoak barne, etxetik atera zituzten.



Josu Cariñena Arbelaitz hil da

IRUN. Josu Cariñena Arbelaitz LGTBIAQ+ eskubideen aldeko eta ezker abertzaleko militante historikoa hil zen otsailaren 10ean 64 urterekin, gaixotasun baten ondorioz.

Borrokan «bukaera arte» aritutakoa izan zen Cariñena, eta «militante konprometitu» gisa oroitu zuen Irungo ezker abertzaleak.

Martxoaren 22an Hendaiaiko Sokorburuko aparkalekuan elkartu ziren dozenaka herritar Cariñena oroitu eta berau omentzeko.

Zubibidea eraisteko lanak, lizitaziora

PASAI. Eusko Jaurilaritzako Mugikortasun Jasangarriaren Sailak jakinarazi zuen Antxoko topoaren zubibidea eraisteko eraikuntza proiektua idazteko lizitazioa egin zuela 140.000 euroko aurrekontuarekin eta sei hilabeteko egikaritze-epearekin.

Zubibidea 350 metro ingurukoa da luzeran, eta bi tarte berezi ditu: lehena etxebizitzaren artean dago, eta bigarrena Marealtaren gainean.

«Lizitaziora atera den proiektuak alternatiben azterlan baten bidez zehaztu beharko du zein den Pasai Antxoko hirigunean eta paisaian oztopo fisiko hori kentzeko soluziorik onena, eta aztertu beharko du ea eraisteak ingurune urbanoenari bakarrik eragingo dion, etorkizunean ibaiaren gaineko azpiegitura beste erabilera batzuetarako mantenduz, ala eraisketak bigarren tarte hori ere hartuko duen», zehaztu zuen sailak.



Osasun Bidasoak maiatzean egindako manifestazioko irudi bat. I. Saiz

Pediatria larrialdiak ixteagatik, kexu bizilagunak

Apirilean jakinarazi zuen Osasun Sailak Bidasoa Ospitaleko pediatria larrialdi zerbitzua itxiko zutela, eta ehunka erreakzio sortu ziren. Desadostasuna adierazi zuten herritarrek.

LEIRE PERLINES APALATEGI

BIDASOA

Irun eta Hondarribian, orotara, hiru anbulatorio daude, eta horietan pediatria zerbitzua lanegunetako goizetan eskaintzen zen; 08:00etatik 15:00etara, alegia. Ordu tarte horretatik kanpora Bidasoa Ospitaleko larrialdiko pediatria zerbitzura joan behar zuten pazienteek; hango ordutegia 15:00etatik 08:00etara zen.

Apirilaren hasieran, baina, Osakidetza aldaketak iragarri zituen pediatriaren larrialdi zerbitzuan, eta horren arabera lanegunetako larrialdi zerbitzuan pediatria bakarra egongo zen Irun zein Hondarribiko hiru zentroetarako. Hark arreta 15:00etatik 17:00etara emango luke. Egoera hori, baina, «balizko hobekuntza» gisa aurkeztu izana salatu zuen Osasun Bidasoa plataformak: «Benetako emaitza honako hau da: 15 ordu gutxiago arreta pediatrikoan lanegunetan, eta 24 ordu gutxiago larunbat eta jaiegunetan».

Bidasoa Ospitaleko pediatria larrial-

di zerbitzua maiatzaren 1ean ixteko erabakia hartu zuen gero Osasun Sailak, eta, hartara, luzatu egin zituzten Irungo erdiguneko eta Dunboako anbulatorioetako zein Hondarribiko Itsas Etxeko pediatren kontsulta ordutegiak bi orduz, arratsaldez.

Osasun Bidasoak egoera aztertu, eta ospitaleko pediatriako larrialdiak ez ixtea proposatu zuen. Horretarako, 2012an itxi zuten pediatria zerbitzua berreskuratzea eskatu zuten. Proposamen horren helburua pediatriako larrialdiak ospitalean mantentzea litzateke «24 orduz eta 365 egunez, azken 36 urteetan izan den bezala».

Larrialdiak ez ixteko familiei mobilizatzeko dei egin zien plataformak: «Gure eskualdeek ezin diote uko egin azken 36 urteetan funtzionatu duen zerbitzu publiko bati».

Maiatzaren amaieran egin zuten manifestazioa Irungo San Juan plazatik abiatuta. Ehunka lagun elkartu ziren. ■

Markel Amat Txinan izan da lehiatzen

PASAIA. Markel Amat Baztarrika sanpedrotarra Txinako Wuxi herrian jokatu zen Kadete Mailako Munduko Eskrima Txapelketan izan zen. Fortunako tiratzaila sable modalitatean aritu zen Txinan.

Amaten lehia apirilaren 8an izan zen, eta Fortunak adierazi zuen hark Munduko Txapelketan parte hartzea «mugarri historikoa» izan zela, lehen aldia baitzen euskal eskrimaren historian bi tiratzaillek Munduko Txapelketarako sailkapena lortu zutela [Amatekin batera June Ruiz Belategi hernaniarra izan zen txapelketa horretan].

Amatek berak HITZari azaldu zion Txinako lehia «nahiko ondo» joan zela, baina uste zuela esperientzia falta izan zuela. «Txinakoa batez ere bidaiaetatik izan zen gogorra, zertxobait desorekatu baininduen».



Arantxa Lete Bergaretxe hil da

OIARTZUN. Arantxa Lete Bergaretxe hil zen apirilaren 2an. Lanbidez irakaslea, Oiartzungo kultur eta gizarte mugimenduetan sakon ibili zen lanean Elizalde auzoko Egiania etxean jaiotako emakumea. Haren herrigintzan eragiteko alorrrak batez ere feminismoa eta abertzaletasunari lotutako adierazpideak izan ziren. Oiartzunen oso ezaguna, emakume ireki eta langilea izan zen, herriarekin eta herrigintzarekin engaiatua. Arrastoa utzi du Oiartzunen.

Killirikupe emakumeak ahalduntzeko elkartearen sortzaileetakoa izan zen, hura udalean zen feminismotik herrian eragiteko eta emakumeak ahalduntzeko espazioa piztu zenean.



Lurpeko saihesbidea, azken fasean

ERRETERIA-ORERETA/PASAIA. Apirilaren 30ean egin zuten Erreteria-Ore-tako Galtzaraborda eta Antxo lotzen dituen tuneleko bigarren kalearen edota frontearen batzea. Horrekin batera, beraz, amaitutzat eman ziren Altza eta Galtzaraborda artean lurpean dauden saihesbideen lineako tunel osoa hondeatzeko lanak. Inguruko erakunde guztietako ordezkariak parte hartu zuten Antxon topoa lurperatzeko lanetan mugarri izan zen ekitaldian.

Gainera, egun horretan bertan ireki zuten jarduketa horiek egin bitartean kaltetuta geratu zen 3.000 metro koa droko Antxoko Ibaiondoko plaza. Antxoko lurpeko geltoki berria Gure Zumardia kalearen ondoko plazaren azpian dago. Sarbidea Eskalantegi kalean egongo da. Igogailua ere egongo da, elizaren ondoan. Larrialdietako irteera, aldiz, Hamarretxeta kalearen inguruan ezarriko da. Geltokiko nasak alboetan izango dira, baina eskailerek atari bakar batera emango dute, eta handik irtengo da kalera. Bi nasak ere igogailu baten bidez egongo dira lotuta atariarekin.

Amaya Zabartek deklaratu egin du

IRUN. Ertzaintzak foam pilota bat jaurti eta ostikada bat eman zion Amaya Zabarteri 2024ko martxoan, Realaren eta Paris Saint Germainen arteko partidako istiluetan: hamar egun eman zituen ospitaleko Zaintza Intentsiboen Unitatean, burmuineko odoljariora eta garezurreko hausketa zituelako. Apirilaren 7an deklaratu zuen Zabartek lehenengoz, eta haren abokatuak defendatu zuen «betirako arazo neurologikoak» dituela. Segurtasun Sailak ukatu egin zuen kalteak pilotakadagatik izan zirela; forentseak baieztatu egin zuen zauriak bateragarriak zirela jaurtigiarekin.

'Auzokide patruilak' sortu dira Irunen

IRUN. Irungo San Migel auzoan pertsona baten gorpua agertu zen apirilaren 10ean. Apirlaren 19an, 45 urteko gizon bat hil zen Cipriano Larrañaga kalean jasotako eraso baten ondorioz. Apirilean Irungo herritar talde bat antolatzen hasi, eta *auzokide patruilak* egiteari ekin zion larunbat gauetan. Gero, maiatzaren hasieran Lo Vimos en Irun WhatsApp taldea sortu zuten «delituak prebenitzeko». Antxeta Irratiak erreportaje sakona egin zuen gaiaren harira, eta bertan azaldu zuten talde hori, praktikan, «biztanleria magrebtarraren aurkako gorrotoaren haztegi bat» zela. Gainera, jakinarazi zuten bertako kide askok «eraso bortitzak» egiteko asmoa zutela.



Lezoko Oroimenaren webgunea egin dute

LEZO. Lezoko Oroimenaren webgunea aurkeztu zuten apirilean. Egitasmoa Etxetxo Lezoko Memoria Historiko Taldeak, Lezoko Udalak eta Aranzadi ondu zuten helburu bakar batekin: 1936 eta 1978 urteen artean frankismoak eragindako sufrimendua, errepresioa, mina eta erreparaziorako testigantzak jasotzea.

Hiru aldeko elkarlanaren egitekoa izan da urte horien arteko errepresio frankistaren biktimak guztiak izen-abizenekin identifikatzen jarraitzea. Frankismo osoa hartu zuten kontutan, baina baita hurrengo hiru urteak ere. Etxetxok identifikatutako biktimak, eta 1978ra artekoak banan-banan ari dira sailkatzen, eta horiek webgunera bulkatzen.

Atari digitalean 366 pertsonen oinarritzko fitxak nabarmendu dituzte: datu pertsonalak, jasandako urraketa, eta urraketa horien iturria ageri dira horietan, testigantzak tartean. Gainera, biografiak ere irakur daitezke. Era berean, Etxetxok egindako argitalpen guztien bildumaren atala dago, baita albisteen zerrenda ere. Testigantzak ere ikus daitezke, bidean.



Oiartzo
etorkizunerako bidelagun

IKASTOLAK



Egindako tontorrek ematen dute berriei ekiteko indarra

www.oiartzoikastola.eus



Hondarribiko Euskaraokea. Ane Mendizabal Sarriegi

Euskaraldiak kaleak hartu zituen maiatzean, 15etik 25era. Milaka Ahobizi eta Belarriprest izan ziren Oarso Bidasoko herrietan, eta herrietako batzordeak lan eta lan ibili ziren. Herri bakoitzak bere programazioa osatu zuen, baina denek helburu berbera partekatuz: euskararen erabilera sustatzea, eta haren presentzia herrian areagotzea. Herri bakoitzak bere beharrak ditu, eta horren baitan egin zuten lana herri batzordeek eta udaletxeek.

Bidasoan Hondarribiko Euskaraldiko batzordea etengabe mugitu zen. Judas Arrietak bideratuta, hainbat ekitaldi programatu ziren, maiatzean ez ezik, aurreko hilabeteetan baita ere. Martxoan hasi ziren, auzoz auzo Euskaraldiaren berri ematen, eta herritarrei galdeketak eginez, haien euskararekiko harremana ezagutzeko. Hitano ikastaroa, irakurketa tailerrak, liburu aurkezpenak, toka txapelketa, kontzertuak... denetarik izan zen maiatza

Euskaraldia, herriz herri, ahoz aho, euskara fokuan jarritz

Euskaraldia izan zen maiatzean, 15etik 25era. Oarso Bidasoko herriek haien aletxoak jarri zuten, bakoitzak bere modura, baina beti ere, euskara nabarmenduz.

URKO IRIDOY ALZELAI

OARSO BIDASOA

bitarte. Festa giroan murgildu zen herria, hala nola Psilocybeko Elektrotxarangaren emanaldiarekin eta nola ez, Euskaraokearekin.

Euskaraokea izan zen Hondarribiko Euskaraldiaren egitasmo nagusia. Maiatzaren 24an herriko hainbat eragilek eta norbanakoez osatuta, karaoke maratoni bat egin zuten, 12 orduz. Herriko eskoletako haurrek eman zioten hasiera, baina ondoren, kultur elkar- teek, alderdi politikoek, lagun taldeek edota Olinpiadetako taldeek hartu zuten oholtza. Euskararen festa izan zen, elkarrekin, euskaraz gozatzekoa.

Irunen, aldiz, Euskaraldiak zapore gazi-gozoa utzi zuen. Udalaren ekimenez hainbat egitasmo burutu ziren, baina azken egunean, San Juan plazan polemika piztu zen. Elatzeta Kultur Elkarteak Txorimaloak soinu taldearen emanaldi bat antolatu zuen, eta San Juan plazan zeudela, ikuskizuna prestatzen, Crossfit proba bateko antolatzaileak hurbildu ziren. Irungo Udalak gaizki ulertu bat izan zuen departamentuen artean, eta leku eta ordu berean bi ekitaldi antolatu zituzten. Azkenean, Euskaraldia lekuz mugitu zuten, gaztelaniazko kirol jarduerari leku emanez. Irungo Euskaraldiko eragileek salatu zuten bigarren plano batean utzi zuela Euskaraldia udalak.

Euskara eta musika

Oarsoaldeko Euskara Batzordeak erakusleihu lehiaketa antolatu zuen. Herriko merkataritza sustatu, eta bertan euskararen presentzia areagotzeko xedearekin. Horrez gain, herriz herri, bakoitzak berea egin zuen. Normala den moduan, musikak protagonismo handia hartu zuen festan. Lezon, hainbat egitasmo egin zituzten musikaren inguruan, hala nola, triki poteoa edo kantu afaria. Pasaian gazteei eman zieten garrantzia, haien saretzea sustatuz. Oiartzunen, Ttur Ttur Euskaltzaleen Bilguneak joko bat antolatu zuen.

Denek izan zuten euskaraz aritzeko aukera, hori baita helburua. Euskarak plazak hartu zituen, baina aldarrikapen argi batekin: «Euskaralдитik kanpo euskararen garrantzia nabarmendu behar dugu urteko 365 egunetan». ■



HITZA

Escalerillaseko bizilagunak, amaierarik gabeko borrokan

Escalerillaseko bizilagunek ez dakite zein izango den haien etorkizuna. Porturako trenaren lanak direla eta hamabi familia haien etxeetatik kanporatu nahi dituzte.

MIKEL DEL VAL GARCIA

PASAIA

Pasaia Portu Agintaritzak (PPA) merkantziak garraiatuko dituen trenbide berri bat sortu nahi du Pasaia portuaren inguruan, eta obra horiek egiteko, Escalerillaseko etxebizitza horiek edota Trintxerpe-Illunberen orain arteko egoitza eraitsi nahi ditu, besteak beste. Oarsoaldeko Etxebizitza Sindikatua hasieratik izan da kaltetutako bizilagunen alboan, eta jakinarazi du 2023ko udazkenean jaso zutela beren etxebizitzak eraitsi nahi zituztenaren notifikazio ofiziala. Une hartan hasi zen bizilagun horien borroka. Lehen notifikazio hartan, 2024ko ekainaren 30erako etxebizitzak utzi beharko zituztela jakinarazi zien portuak bizilagunei. Euren egoera zertan den adierazteko agerraldia egin zuten maiatzean.

Agerraldi horretan bizilagunek eta sindikatuak adierazi zuten gaia epaitegietara iritsi zela. Uztailean egin zuten epaiketa, eta epaia PParen interesen

aldekoa izan zen. Etxebizitza Sindikatuen arabera, «formalismo huts batean» oinarrituta (desafektazio prozesua akta batean ustez ez argitaratzea), ontzat eman zuen epaileak «zentzurik ez duen prozedura bat».

Sindikatuak epaiaren harira adierazi zuen Escalerillaseko bizilagunek ez dutela «higiezin bat usurpatu», baizik eta beren diru sarrerekin eta lanarekin jabetzari eusteko ekarpena egin duten langile familiak direla: «Hau da, prekarioko prozedurak, maizterrak baime-nik gabe (higiezinak usurpatzen) bizi izan zirela onartzen zuenak, ez zuen zentzurik; izan ere, maizterrak hainbat hamarkadatan bizi izan ziren etxebizitza horietan, portuarekin elkarriketak izan zituzten, jabetzari eusteko errenta ordaindu zuten, eta, are gehiago, portuarekin lan lotura izan zuten».

Momentuz, bertan jarraitzen dute bizitzeko bizilagunek. Gaiaren gaineko albistek ez da oraindik ere. ■

Hamaikagarren Berdintasun saria

HONDARRIBIA. Jaizkibel konpainiak Hondarribia Berdintasun Hiria saria banatu zuen maiatzaren 30ean, Itsas Etxean. Aurten, Teresa Del Valle omendu zuten, hamaikagarrena izan zen sariketan. Ikerlariaren obraren irudiak, liburu zatien irakurketa, pailazoak, besarkadak, malkoak... une hunkigarri ugari bizi zituzten bertaratuek. Haatik, ezin izan zuten ekitaldia aurreikusitako ospakizun giroan egin, goiz hartako Bilboko erailketa bikario matxista zela eta. Minutu bateko isilunea egin zuten erailketa salatzeke.

Arantxa Urretabizkaia, Maria Jesus Berrotarnek, Maite Asensiok, Maria Jose Noainek eta Oihana Etxebarrietak osatu dute aurtengo sari banaketako epaimahaia. Haien konpromisoagatik eskerrak eman zizkieten.



Ander Garaiar, errekorrak hautsiz

OIARTZUN. Urte ikaragarria izan du Ander Garaiar kirolari oiartzuarrak. Maiaztean 200 metroetan 20 urtez azpikoekin errekorrak gainditu zituen, Gipuzkoakoa eta Euskadikoa. Hortik gutxira, Espainiako errekorra gainditu zuen, eta azkenik, uda modu onenean amaitzeko, Europako txapeldun izan zen.

10,40 segundoko marka ezarri zuen Garaiarrek 100 metroetako proban, Finlandian egindako Europako Txapelketan. Irailean egin zion harrera Oiartzungo Udalak. Edorta Fernandez kirol zinegotzia: «Aspaldiko zor bat kitatuko dugu gaur, udaberrian hasitakoa. Marka bikainak egin zenituen maiatzan, eta ordutik lortzen ari zarena itzela da».

Irungo Alarde publikoak beste behin bere ibilbidea bete zuen iaz. Zenbakiak diote geroz eta handiagoa dela parekidetasunaren aldeko mugimendua, baina soilik zenbakiak ez dute helburua lortuko. Hamalau konpainia parekide aritu ziren Irungo kaleetatik. Aldekoen txaloen eta kontrakoen begiraden artean desfilatu zuten soldaduek, Alarde bakar eta publiko baten borrokan.

Baina sentsazioak gazi-gozoak dira Alarde parekidearen barnean. Urtero gehiago dira, baina ez da ezer aldatzen. Instituzioetatik ez dago Alarde publiko bakar baten aldeko pausoa emateko asmorik, eta horrek nekea sorrarazten du ia hiru hamarkadetan zehar horren aldeko borrokan daramatenen artean. Baina saiakerak hor jarraitzen du, eta baita gogoak ere. Horren adibide da iaz sortu zen Meaka konpainia. Duela 27 urte, Alardearen gatazka hasi berria zela, konpainia sortzeko saiakera egin zuten, baina ez zuten lortu. Orain, aldiz, lortu dute.

Sortu ez ezik, arrakasta handia izan du konpainiak. 2025eko Irungo Alarde publikoko konpainia handienetarikoa izan zen Meaka. Goizean, haien auzotik atera eta beste konpainiekin batera egin zuten ibilbidea. San Migel konpainiaren itzala jarraitu du Meakak, 2023. urtean estreinakoz aritu zen-eta San Migel.

Baina Meaka konpainia ez zen izan protagonista handiena. Beroa izan zen. Temperatura altuek markatu zuten eguna. Goiz-goizetik gaueraino iraun zuen beroak, eta askorentzat, euria baino okerragoa izan zen.

Ikusi bai, erabakirik hartu gabe

Cristina Laborda alkateak argi utzi izan zuen bere ustez Alardea ulertzeko «bi modu» daudela, eta hori bera «errespetatu» egin behar dela. San Juan plazako oles jardueran, udalbatzako alderdi guztiak zeuden presente. Bai-

Irungo Alarde publikoa, handiagoa, aldaketarik gabe

Irungo Alarde publikoak bere bidean jarraitzen du. Parekidetasunaren borrokan dihardu, Alarde publiko bakar baten alde. Udal gobernua aldziz, argi utzi du: «bi modu» daude Alardea ulertzeko, eta «biak errespetatu behar dira».

URKO IRIDOY ALZELAI

IRUN

ta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere. Halere, Bidasoa konpainiako abanderatuak herriko bandera hartzerakoan, ez zen alkatearen presentziarik egon. Ane Unanue EH Bilduko zinegotziak eman zion bandera Iker Monterori.

Urtero moduan, Alarde publiko eta bakarra antolatzeko eskaera egin zion Irungo Alarde parekideko juntak udal gobernuari. Baina eskaerak ez du bere bidea egin, alkatetzak bere postura tin-ko mantentzen du eta.

Agurren urtea izan da 2025a. Hainbat karguk beraien postua utzi dute, hala nola Bandako zuzendari Maddi Sanzek eta Tanborradako Irati Amantegik. Baina nabarmentzekoa da Maite Bergara jeneralaren azken urtea izan dela. Patxi Perez izango da agintari eta gidari berria. Urrian aurkeztu zuten. «Oso argi dugu gurea dela etorkizuneko alardea. Irundarrak gara, alardea maite dugu eta tradizioak errespetatzen ditugu», esan zuen Perezek HITZari egindako elkarrizketan. ■



Irungo Alarde publikoko partaideak. HITZA



HAPOa behin behinean onartu dute

HONDARRIBIA. Ekainaren 19ko oso-ko bilkura hitzordu garrantzitsua izan zen, bertan HAPO (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) dokumentuaren behin-behineko onarpena bozkatzera eraman zuelako udal gobernuak. Abo- tsanitz eta EH Bilduren babesarekin aurrera atera zen etorkizuneko Hondarribia marraztuko duen hirigintza plana. PSE-EEK abstentzioaren alde egin zuen eta EAJ, berriz, kontra azaldu zen.

HAPOren helburu nagusia egun- go «etxebizitza larrialdiari» erantzutea da, eta horregatik, planak 1.500-1.600 etxebizitza sortzea ahalbidetuko du. Etxebizitza horietatik gehienak publi- koak izango dira, eta biztanleen profil anitzetara egokituko dira: alokairuan, salmentan, lagapen bidez edota koope- ratiba moduan eskainiko dira. Etxebizi- tza eredu horiek, gainera, leku berean eraikiko dira, era horretan segregazioa saihestuko delako. Zentzu horretan mintzatu zen Igor Enparan alkatea: «Ez dugu onartuko zenbait auzo soilik etxe- bizitza librez osatzea eta beste zenbait babestuekin. Gizarte eredu bidezko, orekatu eta integratzaile baten aldeko apustua egiten dugu, non auzo guztiek aukera eta azpiegitura berberak izango dituzten». Onartu berri zen HAPO do- kumentuaren xehetasunak ekainaren hasieran aurkeztu zituzten, eta udalaren webgunean ere (hondarribia.eus) aurki daiteke informazioa.

Dokumentua prestatu bitartean plana behin betiko onartu eta hilabete gutxi- tara Montañenea, Etxanikenea eta Ku- bo-Madalenako jarduketak eraikitzen hasi ahal izateko prestatzen ari da udala, besteak beste.



Urtzi Urkizuk irabazi du Midas saria

LEZO. Urtzi Urkizu Adrian lezoarrak 2025eko Midas saria irabazi zuen. Mi- das Europako hizkuntza eta hiztun gutxituen hedabideen elkarte da, eta 2001. urtetik hizkuntza horien gainean lanketa egiten duten kazetarien jarduna jarraitu, eta aitortza egiten die sariaren bitartez. Ekainaren 12an jaso zuen ai- tortza Berria-ko kazetari Urkizuk Slove- niako Vilpoze hirian; han egin zituzten elkartearen barruko batzar nagusia eta bestelako asko. Gainera, batzar nagusi hartan zuzendaritza aldaketa ere izan zen: Martxelo Otamendi Berria-ko zuzen- dari izandakoa izendatu duten elkarte- ko presidente, Edita Slezakova eslovakia- rraren lekukoa hartuta.

«Europar eta munduan gurea beza- lako beste errealitate batzuk daude. Komunikabide horien guztien iraupena hil ala bizikoa da, hizkuntzentzat eta hizkuntza horiek hitz egiten dituzten komunitateentzat. Behar-beharrezkoa da erakunde publikoek hori aintzat har- tzea, eta haien iraupena bermatzea», na- barmendu zuen Urkizuk.



Fernando Telletxea 'Fama' omendu dute

ERRETERIA-ORERETA. Bizitza osoko ibilbidea eta egindako ekarpen ordai- nezina aitortu zion Erretereria-Orere- tak Fernando Telletxea Oscoz *Fama*-ri. Omenaldi instituzionala egin zion ak- tore, abeslari, idazle, transformista eta LGBTBI kulturaren erreferenteari udalak. Herriak Telletxearekin zuen zorra kita- tzeko urratsa egin zuen; hunkituta eta eskertuta jaso zuen aitortza.

Data ez zuten ausaz aukeratu. Egun hartan, ekainaren 10ean, bete ziren 46 urte Vicente Vadillo Santamaria Fran- cis polizia batek tiroz hil zuela. Udalak gisa horretako omenaldia egiten duen lehen aldia dela jarri zuen nabarmen aurkezle lanetan aritu zen Julen Goro- sabelek, «horretarako moldeak apurtu zituen eta gaur egun horretan jarraitzen duen erreteriarra aitortzea erabaki du udalerriak».

Oroitzapen gazi-gozoa du Famak bere sorlekuaz. Jazarpen jarraitua pai- ratu zuen, baina halere, ilusio handiz jaso zuen saria, bertako denei eskerrak emanez.





HITZA

BEHIN-BEHINEKOA, BEHIN BETIKOAREN ZAIN

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

LEZO. Heriotza asko, gehiegi, izan ondoren, Gaintxurizketa auzoko bizilagunek urte luzez eskatutako pasabidea zabaldu zuten joan den uztaillean, behin-behinean. Auzotarrek eta inguruko enpresetan lan egiten dutenek Gi-636 errepidea gaintitu dezaten pasabide seguru bat zabaldu zuen aldundiak, inguruko lanak Lezoko Udalak ere egin dituelarik. 14 metroko luzera du, eta bi aldeetan eskailerak, handik auzora joan edota inguruko enpresetara iristeko bidera doazenak. Behin betiko pasabidea, ordea, aurten aterako dute lizitaziora.



Asun Casasolaren ausardiari aitortza

Joan den uztailaren 7an 17 urte bete ziren Jose Diego Yllanese Nagore Laffage Casasola irundarra erail zuenetik Iruñeko sanferminetan. Urtero bezala, omenaldi berezia egin zuten haren lagun, senide eta gertukoek. Jendetza gerturatu zen Emakumeen Etxera, eta txiki geratu zenez, kanpoko plazan egin behar izan zuten ekitaldia.

Lehenik eta behin, Cristina Laborda alkateak «mina eta haserre» adierazi zuen. «Emakumeen kontrako biolentzia-aren aurrean Iruñek konpromisoarekin

eta kontzientziarekin erantzuten du. Mezua argia da: kondena eta gaitzespena», adierazi zuen alkateak.

Laffageren ama Asun Casasolaren «ausardia» aitortu zuen alkateak, eta mina «indar geldiezinean» bilakatzeko gai izan dela, «justiziaren, memoriaren eta emakume guztien alde borrokan» dabilelako, tinko. Eskerrak eman zizkion Casasolari, «haren borrokagatik eta inoiz ez amore emateagatik».

Casasolak «zortea» duen ama dela nabarmendu zuen uztailako omenaldian, orain arte eta egun izaten jarraitzen duen babesagatik. «Ama asko ezagutzen ditut, eta denek ez dituzte Iruñe eta Iruñea bere ondoan. Gaurko eguna oso triste den arren, pozik sentitzen naiz. Egun okerreanean ere pozik sentiarazi nautzue».

Ekitaldia biribiltzeko, Esther Barandiaran pianista pieza bat eskaini zuen, eta haren ondoren Emakumeen Etxeko koru feministak musikaz eta aldarritz bete zuten plaza.



25

ERROMERIA EGUNAREN URTEAK.

Joan den uztailaren 19a egun berezia izan zen Erretereria-Oreretako Ereintza Dantza Taldearentzat eta oro har euskal dantza maite dutenentzat. Erromeria Egunaren 25. ekitaldia egin zuten, lehen edizioko ilusio berberarekin.

Erromeria Eguna Erretereriako kultura sustatzeko beharrak bultzatuta antolatu zuten herriko bederatz lagunek 1998an. Tartean zen Juantxo Maya oreretarra, eta festaren atarian harekin izan zen HITZA. «Erromeria Egunak 25. urteurrena beteko du, eta horrek esan nahi du gauzak ongi egin ditugula. Harrotasun puntu bat ematen digu. Dena dela, harrotasuna baino gehiago, poztasuna eta asetasuna sentitzen ditugu».

Eguna behar batetik abiatuta sortu zutela aipatu zion hedabideari Mayak.

Urtero bezala, zientoka lagunek dantzan jarri zuten herria. Eguraldia lagun izan zuten gainera, beraz, urterren biribila izan zen. Herri bazkarian, adibidez, 370 lagun bildu ziren. «Hori ikaragarria da», aitortu zuen Mayak.

25 urteren ondoren, Erromeria Egunak etorkizuna bermatuta duela uste du Mayak, gutxienez beste 25 urteko bidea izango duelako: «Badira gazteak ere, noski, eta are gehiago azken urteotan. Seguru izango dela erreiborik, ez daukat zalantzarik, eta uste dut beste hainbeste urtez izango dugula eguna».



Lepo beteta utzi zuten plaza Muguruzaren zaleek. Allende Arnaiz.

Mundu osotik egindako birako onena, etxean

Abuztuaren 14an Fermin Muguruzak orain arteko kontzertu handienetako bat eman zuen bere etxean, Moskun. Urdanibia plaza txiki geratu zen, gutxitan ikusi da plaza gorria hain lepo.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

IRUN

Ez zen Anoeta, ezta San Mames ere, baina horien itxura hartu zuen joan den abuztuan Irungo Mosku auzoak. Handia egin zuen beste behin Fermin Muguruzak etxean (abuztuaren 14an izan zen emanaldia), Anoetako estadioa eta munduko areto asko bete ondoren. Artista *moskobita* zuzenean ikusteko gogoak ez zituzten asebate aurten egindako kontzertu erraldoi horiek. Gazteak eta gazteak izandakoak. Inork ez zuen haren emanaldia galdu nahi izan. Hiri, eskualde eta ia lurralde oso bat mobilizatu zuen Muguruzak, orain arte egindako kontzertu berezienetako bat emateko.

Asko eta askorentzat iltzatuta geratuko den egun horietakoa izan zen, zalantzarik gabe. Gutxitan —edo sekula ez moskutar askorentzako— ikusi da plaza gorria hain beteta. Kontzertua-

ren atarian, harekin izan zen HITZA. «Moskun kontzertua eman ahal izatea sekulako oparia da niretzat», aitortu zion hedabideari.

Ez zen Muguruzak azkenaldian Moskuko oholtza zapaltzen zuen lehen aldian izan, bai handiena, ordea. Kortatu taldearen 40. urteurreneren harira, 2024ko abuztuan aritu zen irundarra Peña kalean. «1985ko uztailaren 1ean izan zen Kortaturen lehen kontzertua Moskun, bertako festetan. Beraz, horregatik ere 40 urte betetzen dira aurten. 40 urte geroago, hemen egongo naiz berriz ere», aipatu zion HITZA-ko kazetariari, data handirako ilusioz eta gogotsu.

Mosku zapaldu aurretik dozenaka lekutan —mundu osotik gainera— aritu zen Muguruzak, Moskukoa 37. kontzertua izan zen, bira horri ginga ja-

rriz. Bira honek emandako guztiarekin pozik dela aipatu zion HITZARI orduko hartan. «Agian ez ginen oso kontzienter zer gerta zitekeen birarekin, edo iristen garen tokietan izaten ari den eraginarekin. Kontzertuak egiten izan garen heinean beste fenomeno bat ikusi dugu, agian beste kontzertu batzuetan neurri txikian gertatu dena: gazte pila etortzen hasi dira gure kontzertuetara. Sorpresa handia izan da hori. Adibidez, EHZN, 5.000 pertsonako kontzertuan, lehen lerroan zeuden 1.000 pertsonak, denak, gazteak ziren. Moskun ere ziur gazte pila izango direla, horretaz ziur naiz. Gazteak bete egiten dituen giro bat topatzen ari dira. Gazte asko eta askok bete zituzten oholtza pareko lehen lerroak», aitortu zuen kontzertu handiaren atarian. Esan eta egin, milaka gazte ere Muguruzaren erreperitorioa abesten eta dantzatzeko aritu ziren plaza gorrian abuztuaren 14an.

Iñigori omenaldia

Berezia, oso, izan zen abuztuko kontzertua. Horren arrazoi handietako bat haren anai Iñigo Muguruzari eskainitako omenaldia izan zen. Iñigoren Diszipuloak taldeak ireki zuen Muguruzaren akelarre antifaxista, Iñigo Muguruzak oraindik ere asko eta askoren bihotz eta belarrietan bizirik jarraitzen duelako. «Plaza hau [Urdanibia plaza seinalatu zuen] Iñigo da hein batean. Abuztuaren 14koa iragartzeko kartelean ere Iñigo ageri da; biraren lehen kontzertu ofiziala abenduaren 17an izan zen Biarritzeko Atabal aretoan, justu 60 urte beteko zituen egunean. Han hasi zen dena. Orduko hartako kartel berbera egin dugu, eta Iñigoren argazkia ere ageri da. Karteletik abiatuta, beraz, zalantzarik gabe hemen izango da Iñigo abuztuaren 14an». Hala izan zen. «Baxuaren nota bakoitzean, edo gitarraren riff bakoitzean Iñigo dago. Ezinezkoa da kantu bakoitzeko segundo bakoitzean Iñigo ez oroitzeko. Moskukoa ez da izango Anoeta, hitz tarteak eta mezuak ere bereziak izango dira. Hemen, gurekin izango da Iñigo», aipatu zion HITZA-ko kazetariari. Eta bertan izan ziren guztiek berretsi zuten hala izan zela. ■



Pikoketan eraildako zoak gogoan

IRUN. Abuztuaren 11n 89 urte bete ziren tropa kolpistek Pikoketan hogeitaz hil zituztenetik, eta urtero bezala, omenaldi berezia egin zieten haiei. Gertakari horien 89. urteurrenean Blaiako hilerrian bildu ziren zenbait herritar, Irungo ordezkari politikoak (talde guztiak izan ziren bertan), eta fusilatutako senide eta ondorengoak. Lore eskaintza bat egin zuten fusilatuen gorpuak lurperatuta dauden panteoian, eta minutu bateko isilunea egin.

Honako izenak daude (eta hil zituzte-nean zuten adina) egun Irungo hilerrian; guztiak gogoratu zituzten abuztuaren 11ko ekitaldi hartan: Mertxe Lopez Cotarelo (16 urte), Pilar Valles Vicuña (18 urte), Jose Maria Arruti Idiakez (18 urte), Victor Genua Montiano (25 urte), Jesus Lopez Casado (26 urte), Agapito Dominguez Taguada (23 urte), Miguel Jacinto Lopez Pascual (49 urte), Vicente Argote (46 urte), Agustin Miguel Bermejo (39 urte), Felix Luz Etxeberria (27 urte), Angel Braña Lopez (27 urte), Miguel Lorenzo Pascual (35 urte) eta Txato (25 urte).

Ezbeharra Pirinioetan

IRUN. 67 urteko Irungo mendizale bat zendu zen abuztuaren 21ean Carlit mendian (Herrialde Katalanak), Karlos Santiago zuen izena. Irungo Mendizaleak taldeko kide eta Oartzungo Giriziarekin irteera askotara joandakoa zen. Kepa Ordoki elkarteko kide aktibo ere bazen.

Abenduaren 29an, berriz, Eneko Arrastua Panticosan (Huesca, Espainia) hil zen, elur-jausi batek harrapatuta; mendizale sutsua, Erlaitz Mendizale Taldeko kide zen.



Irati Tamarit, herritik mundura

ERRETERIA-ORERETA. Irati Tamarit Buenetxea lore diseinatzailea Herbehereetan izan zen abuztuaren 12an, orain arte izandako erronka handienetako bati aurre egiteko. Lore Artearen Munduko Kopa jokatu zuen, urte luzeko ibilbide oparo bati gina jarritz. 12. postuaz gain, aurkeztutako artelanetako batek munduko onenen artean txoko bat egin zuen: hirugarren pieza onena izan zen, bere proiektuaren «giltzarria» izen zena.



Beste uda baketsu eta osasuntsu bat

PASAIA-LEZO. Abuztu bukaeran joan ziren Oarsoaldean uda pasa zuten bost haur sahararrak haien etxera, Tinduferra (Aljeria) hain zuzen. Hiruk Donibanen pasa zuten aurtengo uda, eta bik Lezon. Familiek, lagunak eta herritarrek urteroko agurra egin zieten Gaymula, Fatma, Kanan, Tiba eta Wuabari Donibaneko Bixi-Bixi elkartearen egoitzan. Haiekin batera izan ziren Aintzane Taberna, Aitor Brion eta Natitxu Etxarri zinegotziak. Agurra biribiltzeko, merienda ederra ere egin zuten bertaratutakoek.

Haur sahararren aurtengo udako egonaldia esperotakoa baino motzagoa izan da, hiru asteko atzerapenarekin iritsi baitziren Euskal Herrira. Haurrak uztailaren 17an iritsi ziren Pasaiara eta Lezora, eta harrera instituzionala egin zieten Lezoko eta Pasaiako udalek bi udaletxeetan. Haur horiek Oporrak Ba-kean programari esker izan dira Oarsoaldean, eta Bixi-Bixi elkarteak da programaren eskualdeko arduraduna. 2026ko uda iristeko zain geratu dira denak, eta harrera familia gehiago behar dituztela jakinarazi dute elkartekoek.



Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

ALDUNDIAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42
OIARTZUN - www.aitonetxe.com





San Juango emakumeek herriarekin ospatu zuten igoera. HITZA

'Baterlerak' eta Hibaikako gizonak, koska bat gora

San Juango emakumeak elitera bueltan dira denboraldi bikaina osatu ondoren. Play-offak irabazita Euskotrenen izango dira. Hibaikako gizonak, aldiz, KAE1 Ligara egin dute jauzi.

MIKEL DEL VAL GARCIA
OARSO-BIDASOA

Aurtengo uda bizia izan da arraunaren zaleentzat. Oarso Bidasoko bi ontzirentzat sasoi bikaina izan da, igoerarekin biribildu baitute itsasoan egindako lan ona. San Juango *Baterlerak* elitera buelta dira denboraldi bikaina osatu ondoren. 2024an berriro sortu zuten eskifaia, eta soilik bi urtetan ETE Ligatik Euskotrenera egin dute jauzi arrosak. ETE Ligan zazpi bandera irabazi dituzte, eta play-offean nagusitasunez gailendu ziren Donostiarraren, Zarautzen, Chapelaren eta Tiranen aurretik. Euskotrenen izango dira 2026an. Bestalde, Hibaikako gizonak KAE1 Ligara igo dira. *Madalen* ontziak begiz jota zituen igoerako play-offak, eta KAE2n hiru bandera lortu ondoren, lehiatzeko aukera izan dute aurten. Denboraldi osoan erakutsitako erregularitasuna

agerian geratu zen play-off horretan, eta bigarren postuan sailkatuta, koska bat gora egin du Erreterria-Oreretako ontziak.

Txanponaren beste aldean Hondarribiko emakumeen ontzia, Euskotrenetik ETE Ligara jaitsi baita. *Ama Guadalupekoa* ez da elitean izango 2026an, eta jaitsierak aldaketak ekarri ditu: azken zortzi urteetan prestatzaile izan den Iker Cortesek ez du taldean jarraituko, eta hamar urtez Lekittarran egon den Osertz Aldaik hartuko du emakumeen taldearen gidaritza. Hondarribiarra etxean izango da datorren denboraldian. Ligan jaitsi arren, hondarribiarrak Kontxan izan dira aurten. Elitera itzultzeko helburua izango dute orain.

Hondarribiko gizonak denboraldi ona osatu dute. Liga hasi aurretik, Mikel Orbañanos prestatzaileak iragarri

zuen maila apalagoan ibiliko zirela 2025ean, baina uda bikaina osatuta, bosgarren izan dira ligan eta seigarren Kontxan. San Juanentzat positiboa izan da eliterako itzulera, eta maila erraz mantendu ondoren (zortzigarren izan dira ligan), Kontxara bueltatu dira, zortzi urteko lehortearen ondoren. 2017an lehiatu zen azkenekoz *Erreka* Kontxan, eta zazpigarren izan dira aurten. Hibaikako emakumeak ere fin ibili dira, eta jaitsierako play-offak erraz saihestu ondoren, Euskotren Ligan jarraituko dute beste urte batez. Kontxako parte hartzearekin biribildu zuten sasoi.

Hibaikako gizonekin batera, San Pedro eta Hondarribia B KAE1 Ligan ari tuko dira 2026an. 2024an maila galdu ondoren, ohorezko postuetatik urrun izan da *Libia*. Bandera batekin itxi dute sasoi, eta hurrengo urtera begira jarri dira jada: Fernando Valenciaga prestatzaileak taldea utzi du, eta aurten Orioko emakumeen gidari izan den Patxi Frances izango da sanpedrotarren entrenatzaile berria. Hondarribia Bk jaitsierako play-offean mantendu zuen maila, eta KAE1 Ligan jarraituko dute.

Trintxerpe-Illunbe, larri

Trintxerpe-Illunbek egoera kritikoan eta desagertzeaz zegoela iragarri zuen iraila hasieran. Pasaiaiko Portu Agintaritzak (PPA) portuko instalazioetatik desalojatu zituen, eta irtenbide errealik gabe zeuden. Urgentziazko azken deia egin zuten laguntza eskatzeko eta beren jarduna ezerezean ez geratzeko, eta ahalegin horrek fruituak eman ditu. Urri bukaeran, klubak jakinarazi zuen PPA, aldundia eta Pasaiaiko Udala behin betiko irtenbidea aurkitzeko prest azaldu zirela, Illunberentzat behin betiko konponbide bat lortzeko.

Abenduko Ohiko Batzarrean zuzendaritza berria aukeratu zen. Jokin Pego izango da presidente berria, eta aitortu zuen «ohore handiz» hartu duela kargua. Zuzendaritza berriaren helburu nagusia «klubaren behin betiko egoitzaren eraikuntza bultzatzea» izango da, eguneroko jarduna alboratu gabe: lehian dauden eskifaia mantenduko dituzte eta adin guztietako arraunlariak prestatzean jarraituko dute. ■



Illaretak urrezko hiru domina Europakoan

LEZO. Kayak surfean eta waveskian mundu mailako potentzia da Euskal Herria. Horren seinale, irailaren 4tik 9ra Irlandan egin zen Europako Kayak Surf eta Waveski Txapelketan bederatzi urrezko domina lortu zituztela (zazpi zilarrezko, eta hiru brontzezko ere bai) Euskal Selektzioa kirolariak. Emaizta bikain horietan zerikusituzena izan zuen Aiur Illarreta Beñaran lezoarrak: bakarka bi urrezko lortu zituen Open kategorian (adin guztietako kirolarien kategoria), bana piragua motzarekin zein luzearekin. Horri, taldekako urrea erantsi zion gazteak. Beraz, etxeko apalak beste hiru urrezko biribilkirekin bete ditu.

Aurtengoak ez dira lortu dituen lehenak. 2024ko Munduko Txapelketan Open Mailako bi kategorietan (piragua luzea eta motza) txapeldun izan zen lezoarra, Argentinan. 2023ko Europakoetan, Galizian, urrezkoa lortu zuen Opren ere bai, piragua luzearekin. 2022ko Kayak Surfeko Munduko Txapelketan, Ingalaterrako Bude herrian, Junior Mailan bitan izan zen irabazle lezoarra, ontzi laburretan eta luzeetan.

Agur esan du Autobus Magikoak

OIARTZUN. Duela hamar urte sortu zen Oiartzunen Autobus Magikoa taldea, eta zazpi urte kontzerturik eman gabe egon ondoren, irailaren 27an egin zuten azkena, Ugaldetxoko festetan. Euskal Herri osoko jendea gerturatu zen taldekideei merezi zuten agurra ematera. Sorreratik hamar urte bete ziren horretan lortu eta sortutakoa ospatu nahi izan zuten musikariak.

Taldekideek argi utzi zuten ez zela itzulera bat izan, «gustatuko litzaigukene agur dezente bat» baizik. Modu ezin bereziago batean egin zuten ospakizuna. Azken geltokira iritsi ziren.

LGTBIQ+ bizitzak, lehen lerrera

PASAI. Pasaiaiko Udalak LGTBIQ+ bizitzak izeneko diagnostikoa aurkeztu zuen irailean Donibaneko Juanba Berasategi aretoan. Ikerketa Eihera kooperatibak gauzatu du, eta Pasaiaiko LGTBIQ+ komunitatearen errealitateak eta beharrak islatu ditu, herriko norbanako, elkarte, eragile eta udal langileen testigantzetatik abiatuta.

Ia urtebeteko lanketaren ondoren, lehenetsuneko neurri batzuk identifikatu dituzte. Udal gobernuak, gainera, neurri horien baitako ekintza plan bat osatzeko konpromisoa hartu du, horien inplementazioa bermatzeko. Azterlanak herri osoko zein barrutikako eginbehar espezifikoak jaso ditu.



Aurten ere Jaizkibel bakartu dute

HONDARRIBIA. Jaizkibel konpainiak, iaz bezala, bere egin zuen Gernikako Arbola. Alarde Eguneako desfilea hasi aurretik Gernikako Arbola ziren biltzekoak konpainia guztiak, hala zegoen adierazita Hondarribiko Udalak egin eta kaleratutako ebazpenean, epaitegiek berretsi zutena. Ebazpen hori bete zuen bakarra Jaizkibel izan zen. Beraz, iaz bezala, landutako ebazpena ez zuten bete konpainia baztertzailak. Jaizkibel bakartu nahi izan zuten emakumeak soldadu bezala onartzen ez dituzten konpainiek.

Konpainia oso handia da Jaizkibel, urtetik urtera zabalagoa. 29. aldia izan da 2025ekoa festak denetak eta denentzat direla adierazten. Abiapuntuan zaleak eta jarraitzaileak alboan izan zituen konpainiak. Kale Nagusian, Arma Plazarako bidean are gehiago izan ziren konpainia babesten izan zirenak, aldeko oihu eta animo mezu artean.

Ordezkariek azken urteetan emandako aurrerapausoak balioan jarri zituzten, baina aurtengo urratsak nahikoak izan ez direla iritzita, pauso «nabarmenagoak» eskatu zituzten.

JARRAI DEZAGUN
URTEKO HISTORIA
ETA ISTORIOAK
ELKARREKIN IDAZTEN



f t i k IKASTOLAK
www.oreretaikastola.eus



Aurkezpeneko talde argazkia. Urko Etxebeste

Lezoarren energia herrian sortzeko ahaldundu dira

Urriaren 8an aurkeztu zuten herritarren aurrean Kunkana Lezoko Energia Berriztagarrien Komunitatea. Energia burujabetza sozialerako jauzia emango du Lezok Kunkanarekin.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

LEZO

Elkarlanean eta komunitatean energia berriztagarriekin lotutako proiektuak garatzeko, Kunkana Energia Berriztagarrien Komunitate Kooperatiba sortu dute Lezon. Topalekua izan nahi du, energia garbi eta bertakoa sortuz, kontsumitzaile pasibo izatetik *prosumitzaile* (produktore eta kontsumitzaile) izatera pasatzeko prest dauden herritarren bilgune. Energia kontsumo eta sortze arduratsuaz gainera, gizarte balioak ere baditu Kunkanak: energia efizientziatik harago, pertsona zaurgarrienekin elkartasuna bultzatuko du; eta energiaren banaketa eraginkorragoa, justuagoa, inklusiboagoa, beharretara egokitutakoa izango du bokazio. Energia burujabetza sozialerako jauzia emango du Lezok Kunkanarekin, pertsonak erdigunean jarritz. Jada bertako bazkide izateko bideak

zabalik dituzte. Urriaren 8an aurkeztu zuten egitasmoa herritarren aurrean.

Kunkana Lezoko izendegiko zati da, topaleku kutsukoa. Olatzar, Lopene eta Mikura erreka batu, topo, kunka egiten duten lekua da. «Toponimia lezoar hau berreskuratu eta baliatu dugu, lezoarrok gure energia komunitate propioan bateratzea helburu dugulako».

Badirudien arren, Kunkana ez da hutsetik sortu. Behetik gorako prozesua izan da. Askoz aurretik gaia lantzen hasi zen Iratzerri Lezoko Ingurumen Elkartea, eta 2024an Lezoko Udalarekin nahiz Goienerrekin sinatutako hitzarmenaren harira, herritarrak ahalduntzeko prozesu parte hartzaile bati ekin zitzaion; prozesu horretan irmo azaldu zen Lezon energia komunitate bat osatzeko aukera eta beharra bertan zegoela.

Kunkana aurkeztearekin batera, proposamen zehatza aurkeztu zuten. Pasaia-Lezo Lizeoaren teilatuan 90 panel fotovoltaiko jartzen hasiko zirela azaroan, eta hilabete batzuen buruan Kunkanako bazkideei energia emango die iturri horrek; gainera, ikastolaren beharrak erabat aseko ditu instalazioak, eta herriko familia zaurgarriengana ere iritsiko da energia, doan, Lezoko Udalarekin abiatutako elkarlanari esker. Pasaia-Lezo Lizeoko 90 panel fotovoltaikoko egitura abenduan bukatu zuten, eta 40 kilowatteko potentzia dute. Instalazio horren gaineko informazioa abenduaren 30ean eman zuten Kunkanak, kultur aretoan.

Bazkide izateko bidea, zabalik

Lezoarren galdera izan daiteke, ea Kunkanako bazkide izanda, hilabeteroko argindarraren faktura merkeago izango den. «Zalantzarik gabe, bai. Baina ulertu behar da aurrezpena, edo merkago izate hori, ez dela magia egiten duen kooperatiba baten ardura. Norberak egiten du magia. Hau da, esku artean zer duzun dakizunean, eta horrek zer kostu suposatzen dizun dakizunean, une horretan gai zara beharrezko dituzun erabakiak hartzeko. Hori ekonomia aldetik. Baina gizarte honetan dagoen arazo nagusienetakoa da gauzak azkar batean nahi ditugula, ohartu gabe zer uzten dugun kanpoan. Enpresa handien kasuan, orain merke izan daitekeena epe luzera garesti izan daiteke. Guk herritarrak ahaldundu nahi ditugu, eta lor daitezkeen hobekuntzak gure lanaren ondorio izango dira. Hori da irabazirik handiena, herritarrak energiaren gaian ere ahalduntzea».

Izaera sozialekoa da Kunkana. Pertsona zaurgarriak kontuan hartuko ditu. Esaterako, udalaren menpeko eta pertsona zaurgarriak bizi diren etxebizitzetara haien energia iritsiko da. Udalarekin elkarlana egin dute familia horietara heltzeko.

Bazkide izateko bidea zabalik du Lezoko energia garbi eta berriztagarrien komunitateak. Hori egiteko haien webgunera (kunkana.eus) joatea bestetik ez dute interesdunek. 41 bazkide ditu jada Kunkanak. ■



Erretiroa hartu du Ane Santestebanek

ERRETERIA-ORERETA. Ane Santestebanek agur esan dio txirrindularitza profesionalari. Urriaren 5ean jokatu zuen bere azken lasterketa txirrindulari profesional gisa, Eibarren. 10-11 urterekin hasi zen bizikletan ibiltzen, eta ez zuen pentsatu «hain urruti» helduko zenik. Orain, 35 urterekin bizikletatik jaisteko unea heldu zaiola erabaki du.

Hamazazpi urtez aritu da Santesteban txirrindulari profesional; Euskal Herrian hasi eta bertan bukatu du. Lehen lasterketa 2009an egin zuen Debabarrena-Kirolgi taldearekin, eta Laboral Kutxan esan dio agur ibilbideari.

IAM pabiloiaren idazketa, esleitura

IRUN. Irungo Udalak jakinarazi zuen esleitu dutela Ficoba ondoan erabilera anitzeko IAM pabiloia eraikitzeke oinarritzko proiektuaren idazketa. «Funtsezko urratsa» dela diote, hiriak etorkizunean «proiektu estrategiko hori lortzeko bidean, azpiegitura berri horren diseinua eta ezaugarriak definituko baititu».

Instalazio horretan, gutxi gorabehera, 5.000 pertsona eserita eta 10.000 pertsona kabituko dira zutik. Bizilagunak hiriko zenbait puntutatik instalazio horretara joateko mugikortasuna eta sarbideak aztertuko dituztela azaldu zuten, eta «jende pilaketa handiak daudenean instalazioaren sarbide eroso eta segurua bermatzeko urbanizazio proiektuan txertatu beharreko jarduketak» proiektatuko dituztela. Azpiegitura hori erabilera anitzeko pabiloia izango da, eta kirol lehiaketak, kontzertuak, ikuskizunak, kongresuak edota azokak jasoko ditu.



HITZA

BIGARRENA GALVEZ ETA GRANADORENTZAT

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

LEZO. Faboritoen artean ziren, eta azaldu zuten izendapen hori ez zela funtsik gabekoa. Maren Galvez Garmendia lezoarrak eta Gorka Granado Terrones sopelarrak osatutako bikoteak (irudian) Segurako Euskal Herriko 49. Dantza Txapelketa irabazi zuen, 2021ean egin bezala, baina oraingoan Lezoren izenean.

Lezoarren 2025eko garaipenak ez ziren hor gelditu. Azaroaren 29an, Gipuzkoar Erako Euskal Herriko VII. Aurreku Txapelketa Nagusian txapeldun izan zen Mikel Esnaola; Ane Jaunarena, lezoarra hura ere, hirugarrena izan zen.



Sari bikoitza Karmele Mitxelenarentzat

OIARTZUN. Euskadi Literatura Saria haur eta gazte kategorian, eta Zilarrezko Euskadi Saria irabazi ditu Karmele Mitxelena Etxebeste oiartzuarak. Bi sari, bi liburu eta gai bera erdigunean: dolua. Heriotza haurren begietatik, batean; suizidioa eta gelditzen denaren dolua, bestean.

Aitona Floren haurrentzako liburuak Euskadi Saria ekarri zion besapean; Zoriona edo antzeko zerbait eleberriak, aldiz, Zilarrezko Euskadi Saria. Ilusioz jaso zituen aitortzak.

Ahotsak eta musikak etxea izango dute

ERRETERIA-ORERETA. Ahotsaren eta musikaren esparruko elkarleen etxea izango dena diseinatu dute Erreterriako Udalak eta herriko eragileek elkarlanean. Altzate auzo berrian eraikiko dute, ibai ertzean eraiki diren etxeen artean hutsik den orubean, eta 4,8 milioi euroko aurrekontua izango du. 2023-2027 Agintaldi Planean jasotako proiektuaren eraikuntza lanak urte berriarekin batera abiatzea aurreikusi dute.

Proiektuaren ezaugarriak eta diseinua eragileekin batera landu ditu udalak, horretarako antolatutako prozesu parte hartzaile baten bidez. Udalak beharrezkoa ikusi zuen agintaldi hasieran ahotsaren eta musikaren esparruan ari diren herriko eragileen jarduna garatzeko baldintza egokiak eskainiko zituen ekipamendua eraikitzea. Dena ondo bidean, 2027ko ekainerako lanak bukatuta egon daitezkeela aurreikusi du udalak.

'San Juan' uretan da, 2027an Red Bayra joateko

2014an hasi zen 'San Juan' baleontziaren erreplika egiteko eraikuntza prozesua. Azaroaren 7an besarkatu zuen badia XVI. mendeko teknika eta materialekin egindako barkuak.

URKO ETXEBESTE PETIRENA

PASAIA

Albaolak historia egiten jarraitzen duela esan zuten azaroaren 7an Albaola Itsas Kultur Faktoriako kideek. *San Juan* baleontziaren erreplika uretaratu zuten egun horretan. Hori egiteko prozesua 2014an hasi zenetik, 340.000 bisitari baino gehiago izan zituen egun horretara arte faktoriako estalpean izan zen ontziak, horietatik 80.000 ikasleak izan zirelarik. Azaroaren 7ko horretan Albaolaren inguruan, San Pedron edo San Juanen, milaka izan ziren uretaratzea irrikaz jarraitu zutenak. Ekitaldi instituzional handia izan zen.

Eraikuntza prozesua luze bezain emankorra izan da. Tamaina handiko erronka. Izan ere, XVI. mendean Pasaian eraiki zen ontziaren erreplika egiteko garai hartako eraikuntza teknikak eta materialak erabiltzen ahalik eta fidelen saiatu direlako. Galtzeko zorian ziren ofizioak ere berreskuratu behar izan dituzte horretarako, tartean itsasoko zurginena.

Albaolak azaro hasieran jakinarazi zuen *San Juan*-en eraikuntzaren lehorrerako fasea bukatu zela, uretakoari bide emateko. Hala, besteak beste, soken muntaketa (4 kilometro soka sarea erabiliko dute) edo belen osatzea (600 metro koadroko bi bela handi) etorriko dira datozen hilabeteetan. Aingura forjatuak, bale-txalupak, kobrezko galdarak, barrikak eta garaiko materialekin eta teknikekin egindako beste tresna batzuk ere jarriko dizkiote. Ekipamendu horiek jarri ahala, ontzia museo bilakatuko da, herritarrei zabalduko diete bisita dezaten. Helburua da 2027an Kanadako Labrador eskualdeko Red Bayra eramatea *San Juan*. 1978an han topatu zuten *San Juan* hondoratua.

Lehorrean baleontziak utzitako tokia *Ozentziyo* barkuak hartuko du, Donostiako portuko azken atunontzi tradizionalak. Ontzi hori zaharbertutako dute han, berriz ere euskal itsas ondarea berreskuratu eta ezagutarazteko asmo irmoarekin. ■

Jendetza bildu zen badian *San Juan* baleontziaren uretaratze ekitaldira. Ikusgarria izan zen. Albaola



Jendaurreko euskaragileei aitortza

OARSOALDEA. Euskararen Egunaren harira, Oarsoaldeko Euskara Batzordeak azaroaren 28an eman zituen 2025eko Oarsoarrak Euskararen Sariak. Jendaurrean euskara eguneroko lanabes duten hiru establezimendu aitortu zituzten: Erretereria-Oreretako Arkaitza taberna, eta Oiartzungo Biok janari presatu establezimendua eta Gure Txoko jatetxe-taberna.

Arkaitzari zabaldu zenetik euskararen arnagune funtzioa bete duelako eman zioten saria, euren jarduna euskaraz garatzeaz gain, Erretereria-Oreretako eta eskualdeko euskaltzaileen topagune izateko baldintzak landu dituelako ia bost hamarkadaz. Biok-en eta Gure Txokon, berriz, Euskal Herrira iritsi berriak ari dira lanean, eta euren egunerokoaren ardatzetakoa euskara izatea saritu zen.

Hondakinen kudeaketan, ados

OIARTZUN. Azaroaren erdialdean iragarri zuten Oiartzungo Udalean ordezkariak izan zuten bi alderdiek, gobernu taldea osatzen duen EH Bilduk eta EAJk, hondakinen kudeaketaren alorrean adostasunera iritsi zirela. Trantsizio ekologikoan eta etorkizunean jarri zuten begirada biek proposamen berriak adosterakoan, eta hondakinen kudeaketa «oso» berraztertu eta hobekuntzarako pausoak zehaztu zituzten. Gaia gatazka iturri izan da azken urteetan; adostasunerako urrats hura oso esanguratsua izan zen.

Adostasun horren lehen emaitza olioaren bilketa sisteman, eta ontzi ariak uzteko poltsetan islatu da.





Tortura, epaitegiek aitortua

IRUN. Otsailean eta martxoan epaitu zuten Iratxe Sorzabal Diez preso irundarra, ustez ETaren bi ekintzatan parte hartzeagatik 1995ean Alacanten eta Irunen. Apirilean eta maiatzan iritsi ziren bien epaiak: absoluizioa bi kasuetan. Bereziki esanguratsua izan zen bigarren epaia: bertan, Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak aitortu zuen akusatuak «tratu gizagabeak» jaso zituela bere atxiloaldian, 2001eko martxoan, Guardia Zibilaren esku. Sorzabalek Irungo ekintzan parte hartu zuela aitortzen zuen idatzia

sinatu zuen, eta epaiak jaso zuen idatzi hori «zuzenbideari begira baliogabea» zela, «akusatuaren oinarrizko eskubideak urratuta lortu zelako (elektrodoak aplikatuta) horren sinaketa». Sorzabalen atxiloaldiko torturen helburua idatzi hori sinatzea izan zela aipatu zuen epaileak espresuki ebazpenean, eta torturapean izenpetutako idatzi hori kenduta, «akusatuaren aldeko errugabetasuna hausteko bestelako probarik» ez zela. «Espainiako Auzitegi Nazionalak torturen aitortza egitea oso inportantea eta historikoa izan da», esan zuten orduko hartan Iratxeren Lagunak taldeko kideek HITZA-ri emandako elkarrizketan.

2001. urtean jarri zuen torturengatik salaketa Sorzabalek Epainiako Auzitegi Nazionalako 13. epaitegian, baina epaileak artxibatu egin zuen. Azaroan, berri ere auzi hori zabaltzeko eskatu zuen irundarrak. Horren harira, babes oldea jaso zuen presoak, tartean izan zelarik irundarren argazki erraldoia azaroaren 15ean (irudian).

Berdintasun Plana, eragileena

IRUN. «Irunen aukeren berdintasuna eta diskriminaziorik eza» defendatzen duten 21 elkarteren lanari esker, Irungo Udalaren V. Berdintasun Planaren administrazio prozesua geldiarazi da. Jatorrizko plana 2022an landu zuten hiriko eragileek eta udalak parte hartze prozesu baten bitartez; hori Emakundera onarpenerako eraman aurretik, ordea, udal gobernua aldatetak egin zizkion bere kabuz, eragileekin inolako kontsulta edo kontrasterik egin gabe. Azken hori da eragileen eraginari esker geldiarazi den plana, udal gobernua bere erara aldatutakoa alegia.



Euskal Jaiak berriz ere herrian

HONDARRIBIA. Duela 100 urte Lore Jokoak egin ziren Hondarribian. Antton Abadiak euskal kultura sustatzeko sortutako jaiak izan ziren Lore Jokoak. Hondarribiaz aparte, Euskal Herriko hainbat herritan egin ziren. Hondarribian zehazki 1883. urtean egin ziren lehen aldiz, eta 1925. urtean bigarren. Hala, 1975 eta 2000 urteetan 1925eko haiek oroitarazteko ekitaldiak egin ziren Hondarribiko Udalaren ekimenez; aurten, 1925eko mendeurrenari balio berezia eman diote, eta Euskararen Egunaren ospakizunekin bat eginda, egitarau oso-oso antolatu zen herrian azaro eta abendu artean. Azaroaren 7an aurkeztu zituzten jarduerak (irudian).

Jarduera horien artean abenduaren 13ko 31. Euskal Azoka izan zen. Euskarazko sormenen gune izan zen Itsas Etxea; berritasunez (tokian eta iraupenean) eta bisitariz bete zen.



HITZA

INDARKERIA MATXISTA EZABATZEKO EGUNA

ERREDAKZIOA

OARSO BIDASOA. Indarkeria matxistak zortzi emakume hil ditu Euskal Herrian 2025ean. Irunen horietako bat: Mirentxu Arregi 71 urteko emakumea hil zuen haren semeak otsailaren 5ean. Indarkeria matxista oro ezabatzeko bidean borroka eta aldarrikapen eguna izan zen azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna. Bortxakeria matxistaren aurrean, saretzearen premiari indarra eman zioten Oarso Bidasoan egin ziren mobilizazioetan emakumeek. Lezoko ekitaldikoa da irudia.



Langileak, abenduaren 11n, hitzarmena sinatu berritan. HITZA

Etkez etxeko langileen borroka, emankorra

Pasaiako etkez etxeko langileena 2025eko lan gatazkarik iskanbilatsuena izan da. Langileen hilabete askoko borrokaldiak eta 108 eguneko greba mugagabeak emaitza eman dute.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

PASAIA

Pasaiako etkez etxeko langileek hilabete askoko borrokaldia eta 108 eguneko greba mugagabea eten zuten abenduaren 11n. «Pasaiako Udalak azpikontratatu duen zerbitzuaren gaineko akordioa lortu da», esan zuten ELA eta LAB sindikatuak. Langileen eskakizunen «zati handi bat» aintzat hartu da lan hitzarmen berrian. Borrokaldian «zaintza lanaren garrantzia eta zentralitatea» aldarrikatu zituztela jakinarazi zuten sindikatuak, eta lan baldintzak hobetzearen zuzeneko onuradunak langileak badira ere, zerbitzua jasotzen duten pasaitarren alde urrats sendoak eman direla azaldu zuten. Gaiarekin harremana duten hiru aldeek izenpetu zuten akordioa: langileek, Pasaiako Udalak, eta zerbitzua esleitua duen Matia Goxara enpresak. 2025ean, Oarso Bidasoan burrunba gehien sortu duen lan gatazka izan da Pasaiako etkez etxeko langileena, ia denak emakumeak.

Azken asteak negoziatzioz beterikoak izan ziren. Pasaiako Udalak zerbitzuaren hobekuntzarako eta langileen lan baldintzak hobetzeko ahalegin sendoa egin zuen, zerbitzurako diru partidak nabarmen handituz. Baina, udalaren nahiz langileen zalantza zen diru gehikuntza hori enpresak erabiliko ote zuen bere onurarako. Akordiora iritsi ziren, ordea. Udalaren ahaleginari balioa eman zioten beharginek: soldatak %30ean igoko dizkiete, guztiek astean gutxienez 25 orduko lanaldiak izango dituzte, eta atsedenerako egun gehiago izango dituzte.

Pasaiako Udalak akordioa harro goretsi zuen: «Akordioa langileek irabazi dute, baina herriak ere irabazi du: zainduak direnek, zaintzaileek, eta Pasaiako komunitateak oro har. Zaintza duinak bermatuko dituen herria nahi dugulako. Eta, bide horretan, udal gobernu hau aliatu izaten jarraituko dute», esan du udal gobernuak. ■

2027an iritsiko da diru konpentsazioa

OARSOALDEA. Erreterriako, Pasaiako eta Lezoko alkateek agerraldia egin zuten abenduaren 17an Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantza Batzordean. Aizpea Otaegik, Teo Alberrok eta Mikel Arrutik eskatu zuten Pasaiako Portuaren jardunagatik zerga konpentsazio berezia eman behar zaiela azpiegituraren inguruan diren udalerriek, jardun horrek eragina duelako herrietan eta herritarrengan, neurri fiskal eta ekonomiko zehatz bidez konpentsazioa behar delako.

EAJren bozeramaileak erantzun zien jada zerga berezi horren tramitazioa martxan dela, eta 2027ko urtariletik aurrera badiaren inguruko udalerriak konpentsazio fiskal hori jasotzen hasiko direla. Alkateek baikor baloratu zuten EAJko kideak esandakoa.



Faxismoaren zauriak, hamabost tokitan

OIARTZUN. Memoria historikoa ikertu eta ezagutarazteko bidean urrats esanguratsuak egin ditu 2025ean Kattin Txiki elkarteak. Irailean, esaterako, 1936. Udatik *negura* komikia aurkeztu zuten. Abenduan, berriz, *Oroimenaren bideak* egitasmoa.

Oroimenaren bideak-en oinarria Oiarzungo hamabost leku dira. Francoren altxamendu faxistak eragin zuen errepresioaren eszenatoki edo gune esanguratsuenak dira horiek denak. Hala, toki bakoitzean panelak eta informazio euskarriak jarri dituzte, faxismoak herrian eragin zuen sufrimendua jendartera zabal dadin, toki bakoitzean gertatu zenaren azalpenekin.

1.175 etxebizitza San Migel-Anakan

IRUN. Irunviko Administrazio Kontseiluak San Migel-Anaka eremua urbanizatzeke lanak esleitzea onartu zuen abenduaren 14an, eta aurreikuspenen arabera, 2026ko otsailean hasiko dituzte obrak. Eremu berri horretan 1.175 etxebizitza eraikiko dituzte, horietatik 887 babes ofizialekoak. Lanak egiteko epea 48 hilabetekoa izango da, eta 27,7 milioi euroko aurrekontua izango dute. Lanen arduraduna Moyua-Amenabar enpresa elkarteak izango da. «Irunen etxebizitza publikoaren esparruan inoiz egin den operazio urbanistiko nagusia da», esan zuen Cristina Laborda alkateak: «Hiriaren mendebaldean erabat eraberrituko da». Etxebizitza berriak eraikitzeaz gain, bi auzoen arteko lotura berrien sarea eraikiko dute, eta ingurune kohesionatua sortu.



Iñigo Muguruzak elkartu ditu

HONDARRIBIA. Euskal Jaien egitarauaren barruan, *Zorionak Iñigo!* musika eta aitortza ekitaldia egin zuten Itsas Etxean abenduaren 17an. Iñigo Muguruza musikariak 61 urte beteko zituen egun horretan (2019an zendu zen). Iñigoren Diszipuluak taldeak, Belek, eta Matah-k eman zioten ukitu musikala arratsaldeari; aretoa lepo bete zuten herritarrek, eta Muguruzaren lagun eta senideek arlo emozionala bor-bor jarri zuten.

Muguruzak sortutako musika oso present izan zen ekitaldian, harekin hainbat taldetan ibilitakoek ere egin zutelako ekarpena. Bidasoko kulturgintza modernoan ezinbesteko figura denak pertsonak eta emozioak elkartu zituen.



Zaldunbordan, egitasmoaren kontrako pankarta 2019an. Asier P-K.

'Zaldunbordako mamua' berpiztu dute

Hondarribiko Udalak ia 14 milioi euroko kalte-ordain eskaera jaso du Zaldunbordako outlet erraldoiaren egitasmoa bultzatu zuten enpresen partetik. Erreakzio asko eragin ditu demandak abenduan.

URKO IRIDOY ALZELAI
HONDARRIBIA

Hondarribiko Udalak Zaldunbordako makro outleta bultzatu zuten sustatzaileen partetik, Higertoki eta Zaldunborda Berri enpresak, 13.700.000 euroko demanda jaso zuen azaroaren hasieran. Egitasmoa ez egiteagatik kalte-ordaina nahi dute bi enpresa horiek. Udalak oduko hartan esan zuen makro outletaren sustatzaileei diru kopuru hori ordainduko balie «udal kontuek kolpe handia» jasoko luketela, eta aldi berean, «EAJko udal arduradunek egindako akats larrien erantzule» izango liratekeela: «Hondarribiarrok ezin dugu hipotekatu gure oraina eta etorkizuna politiko batzuen kudeaketa kaskarrarengatik». Deman-

da horren harira, kalapita sortu zen abenduan.

Udal gobernuan den eta alkatetza duen Abotsanitzek abenduan salatu zuen EAJk proiektua sustatu eta defendatu zuela, eta «pikutara joan denean, Hondarribiko hiriak ordain dezala gutxi batzuen diru gosea eta hanka sartzea». Gobernuak udal taldearen ustez Zaldunborda EAJren «pelotazo» bat izan zen, Aitor Kerejeta Hondarribiko alkate ohiak harreman zuzena duelako Zaldunbordarekin, haren agintaldian bertako lurrak kalifikatu zirelako HAPoaren bidez, eta gerora VUSA enpresaren zuzendari izan zelako Kerejeta, Zaldunbordako enpresa eraikitzailearen buru.

EH Bilduren arabera, «ate birakariak, lagunkeria eta klientelismo sistematikoa EAJren baitan dauden kontzeptuak» dira, eta horren adibide Kerejetaren kasua jarri zuten. Herriko EAJk, bere aldetik, ustelkeria kasuak salatzeke frogak behar direla adierazi zuen, eta udalak jasotako demanda Abotsanitzek eta EH Bilduren erabakien ondorioa izan dela: «Beste behin ere Abotsanitzek lerro gorri guztiak gaitzitu ditu, Hondarribiko egunerokoa nahita kutsatuz eta giroa nahasiz». ■

egin **HITZA** kide

eta 2026ko agenda opari!

Gainera, Debako Hiru Uhinak
hotelean bi pertsonarentzako
gau bat + gosari buffeta
+ spa bonuaren zozketan
parte hartuko duzu



hu
hiru uhinak
HOTEL

www.hiruhinak-hotel.com

(Eskaintza hau 2026eko urtarrilaren
30era arte izango da baliagarri)



Harpidedun egiteko:

Telefonoz: 943 30 30 35

Posta elektronikoz: hitzakide@hitza.eus

Gure webguneetan:

• bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan/

• oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan/



Jada **HITZAKIDE** bazara eros
dezakezu gure agenda: **12 €**

Gainontzekoek: **15 €**

Gure webguneetako dendan edo HITZAko
bulegoan eskuratu dezakezue.

• OARSO BIDASOKO •

HITZA